

# Nazioen Gerra: Bikuñak euskaldunen aurka

Borja Trujillo Ahedo

---

GRAL-aren zuzendaria: Álvaro Aragón Ruano

## AURKIBIDEA

1. Laburpena .....	3
2. Kronika garaikideak.....	4-9
3. Mende batzuk beranduago, euskaldunen eta bikuñen alde (XIX –XX) .....	9-12
4. Potosiko mendiaren magalean .....	13-15
5. Euskaldunen hasierak Potosi-n .....	15-16
6. Euskaldunen Barne Kohesioa .....	16-22
7. Bikuñak .....	23-30
8. Euskaldunak.....	32-34
9. Euskaldunen eta Bikuñen arteko gerra .....	34-44
10. Ondorioak .....	44-47
11. Bibliografia .....	47-50

## 1. Laburpena

Gradu amaierako lan honetan, XVII mendean Euskal kolektiboaren historia aztertuko da Potosi hirian; 1620 hamarkadan eman zen gatazka batez ere. Hasiera batean, gertakizunak ikertzeko erabiltzen diren oinarrizko iturriak aipatuko dira, artxibategi mailan zein kronistikoetan. Hurrengo atalean, historiografia garaikidearen inguruan hausnartzen da eta balantze kritiko bat aurkezten dugu orain arte idatzi denarekin.

Ikerketan aurrera egin ahala, XVII. mendean Potosin euskaldunen eta bikuñen arteko gatazketan sakonduko dugu; euskaldunen hasierak Potosiko inguruan, merkataritza soilak izatetik Potosiko aginte kargu garrantzitsuak eskuratu zuten arte.

Geroago bi kolektibo hauen ezaugarriak plazaratuko dira, gaiaren mamia hobeto ulertzearen helburuarekin. Lehenik eta behin, esan beharra dago, gai honen inguruan lan asko argitaratu egin direla gerra hau aztertzeko, baina gaia bere osotasunean jorratzeko hainbat faktore ezberdin kontuan hartu behar ditugu, gerraren zergatiak ulertzeko, esate baterako, bi bandoen barne kohesio eta izaera ezberdinak. Lanaren lehenengo zatian, garai hartako Potosi aztertuko dugu, hau da, Zerroatik aurkitu egin zen, euskaldunen eragina esplotazioan eta horrek berarekin ekarri zituzten onurak. Beste aldetik, lanean murgildu ahala, bikuñen eta euskaldunen arteko ezberdintasunak alderatuz beraien arteko liskarrak bere horretan zergatik eman ziren eta zer faktore izan ziren garrantzitsuenak, esate baterako, euskaldunen kaparetasun unibertsalak ekarri zituen arazoak bere zilegitasunarekin batera.

Euskaldunen barne kohesioak sakondu heinean, hurrengo belaunaldietan Indietan zehar herrikideak asistentzia eta babes emateko suertatzen diren pausoak ere ikertuko ditugu. Horrekin batera, kaparetasun unibertsala eta odol garbitasunari erreparatuko zaio bere hastapenak, garapena eta defentsan hausnartuz. Ondoren, bi bando hauen arteko gerra garaian izandako gertakizun beliko garrantzitsuenei erreparatuko diegu. Azkenik, euskaldunen gatazka horien ikuspuntua ikertuko dugu hauek Gipuzkoako Batzarrei bidalitako gutunak erabiliz.

## 2. Kronika garaikideak

Atal honetan, euskal kolektiboaren historia XVII. mendeko Potosin aztertzen dugu, 1620. hamarkadan eman ziren gatazketan arreta handiagoa ipiniz. Sarreran, Potosin zeuden euskaldunen iragana laburbilduko da eta Gaztelan jatorria zuten kolektiboekin izandako liskar bortitzak. Jarraian, gertakizun hauek ikertzeko oinarrizko iturriak aipatuko dira, bai maila artxibistikoan zein kronistikoan. Potosiko Hiribildu Inperiala (gaur egun Bolivian), garai kolonialean Indietako hiriburu ekonomikoa eta Gaztelako Koroaren oinarrizko diru-sarrera zena, lilurapena suertatu zuen 1543.urtean muinua aurkitu zenetik.

Artxibategiak ikerketaren lehenengo iturriak izaten dira; dakigunez, Potosi eta euskaldunen inguruko dokumentazioa oso ugaria da. Aipatu ditugun agiriak eta dokumentazioa hurrengo lerroetan banan banan plazaratzen joango gara. Aipatu beharreko lehenengo artxibategia, Potosin kokatzen den Monetaren Etxea izango zen. Honako honetan, Aranzazu-ko Ermandadearen Junten liburua aurkitzen dugu zeinean familia eta norbanako euskaldunak inskribatzen ziren. Liburu honen bitartez, komunitatearen garapena jarrai daiteke 1603 urtera arte, hau da, kofradia eratu zen data arte. Material hau, oinarrizkoa da senidetasuna eta euskaldunen arteko ezkontzak aztertzeko<sup>1</sup>.

Potositik kanpo kokatu beharreko beste artxibategi garrantzitsu batzuk ere baditugu, esate baterako, Sevillan aurkitzen dugun Indietako Artxibategi Orokorra. Artxibategi honetan, artxibo zentrala zenez, dokumentu kantitate oso handia da. Nabarmentzekoa da Charcaseko Audientziako V bolumena; horretan, memorial eta gutun pila aurkitzen ditugu erregeari zuzenduak, euskaldunak eta bikuñak bidalitakoak kekek eta erreklamazioak eginez. Limako Audientziako V bolumenean Potosi-n egon ziren gatazken inguruko idazkiak ere aurkitzen ditugu. VI bolumenean, Escribanía de Cámara de Justicia, gatazken sententzia batzuk daude. Kontsultatu beharreko beste bolumen bat III.a da, bidaiarien

---

<sup>1</sup> Goian aipatu dugun bidaiari zerrenda hori Catalogo de pasajeros a Indias, s. XVI, XVII y XVIII obran aurki dezakegu 1509-1599 urteen bitarteko garaia amaituta egonda. Bermúdez, V.: *Catalogo de pasajeros a Indias, s. XVI, XVII, XVIII*, vols. IV-VII (1560-1599), Madrid, 1980-1986. 1511 eta 1599 urteen bitartean inskribatutako bidaiari nafarren zerrenda ere publikatuta dago: Dominguez-Fernandes, E.: "Pasajeros navarros a Indias en el siglo XVI", *Principe de Viana*, Anejo 13, 1991, 293-310.

zerrendak agertzen dira: nahiz eta Potosi inguruko informazio zuzena ez izan, baliagarria gerta dakiguke euskaldunen itinerarioa jarraitzeko asentamenduetan. Hala ere, kontuan izan behar dugu, euskaldun guztiak ez zirela inskribatzen<sup>2</sup>. Edonola ere, Indietako Artxibategi Orokorrean, Potosirekin erlazionatutak zeuden idazkien inbentario bat gure eskura daukagu<sup>3</sup>.

Perutik at aurkitzen dugun beste artxibategi bat Boliviako Artxibategi Nazionala omen da. Honetan, La Platako Audientzian edo Charcaseko Audientzian Potosin eman ziren gertakizunen dokumentu ezberdinak aurki ditzakegu, esate baterako, hitzarmen liburuak, gutunak, espediente judizialak eta abar. Guztira, 94 dokumentu bikuñen eta euskaldunen arteko liskarren adierazleak. Dokumentu guzti hauek, Gunnar Mendozak bere lanean katalogatu zituen. Euskaldunen inguruko informazio gatazkak baino lehen, ikertzeaz dago<sup>4</sup>. Potosi eta euskaldunen inguruko materialak duten oinarrizko hiru artxibategi hauetan, interesgarriak diren dokumentu-sorta zein atal batzuk aipatu ditugu historiagile batzuen ikerketak jarraituz. Zalantzarik gabe, dokumentu gehiago egon dira oraindik aurkitu ez direnak. Hala eta guztiz ere, hiru artxibategi hauetan, gure gaiaren inguruko datu espezifikoez aparte, beste informazioen bat aurkitu dezakegu, hau da, Indietako gobernuaren, administrazioaren zein ekonomiaren informazioa. Datu hauek, praktikoak izan daitezke, lehenengo eskutik euskaldunek Potosin mugitzen ziren kontestua ezagutzeko<sup>5</sup>.

Amerikako beste oinarrizko artxibategietan ezin izan dugu Potosiren inguruko iturrien existentzia baieztatu. Hala ere, Espainian, Liburutegi Nazionala, Historiaren Erreal Akademia eta Palazio Errealeko Liburutegia nabarmendu behar ditugu. Bestetik, Valladolideko Errege Txanzileria ere aipatu behar dugu. Bertan, iparraldeko prozesuetaz arduratzen ziren: epaiketa eta sententzia dokumentuak (Amerikatik itzultzen ziren

---

<sup>2</sup> Potosin bizi ziren Euskaldunen kasu zehatzean, Jose Maria Esparza Zabalegik gehienak Sevillan ez zutela bere izena eman adierazten du. Esparza, J.M.: *Potosi. Andanzas de un navarro en la Guerra de las naciones*, Txalaparta, 1996, 247 or.

<sup>3</sup> Vázquez-Machicado, J.: *Catálogo de documentos referentes a Potosi en el Archivo General de Indias de Sevilla*, Potosí, 1964.

<sup>4</sup> Mendoza, G.: *Guerra entre vascongados y otras naciones de Potosí*, Potosí, 1954.

<sup>5</sup> Kintana, J.: "La "nación vascongada" y sus luchas en el Potosí del siglo XVII. Fuentes de estudio y estado de la cuestión", *Estudios Americanos*, 59, 1, 2002, 287-310 or.

euskaldunenak), kaparetasun unibertsaleko espedienteak (Amerikara joateko eskatzen zituzten). Azken hauek, Mundu Berrira joateko ezinbestekoak ziren<sup>6</sup>. Espainian zein Euskal Herriko artxibategietan Amerikatik bidalitako gutunak aurkitzen dira<sup>7</sup>. Valladolideko Errege Txanzileriak, iparraldeko prozesuetaz zein Euskal Probintzietakoaz arduratzen zen jada. Bertan, Amerikara joaten ziren edo bueltatzen ziren euskaldunen epaiketak eta sententziak aurkituko ditugu; kaparetasun espedienteak ere. Aurkitzeko zailagoa izan arren, Euskal Herriko eta Espainiako artxibategiak Amerikatik bidalitako gutunak gordetzen dituzte, horietako batzuk Potositik bidaliak. Bidaiarien jarraipen pertsonal bat egiten Hiribildu Inperialean bizi ziren euskaldunen bizitza berreraikitzeko baliagarria izan daiteke<sup>8</sup>.

Ikerketarako bigarren iturri nagusia, garai kolonialeko kronikak eta historiografia dira. Euskaldunen oparotasun ekonomikoa eta nazioen arteko gerra garaiko idazleek jaso zuten. Horien artean, Bartolomé Arzáns de Orsúa (1676-1736) ospe handien lortu duena izan da. Gertakizunak, mende bat geroago deskribatu zituen Potosi-ko agureen kontakizunetan oinarrituta baina ez zituen dokumentu originalak kontsultatu. Idazle honen arazoa, bere kontakizunak eleberri izaera eta inkongruentzia ugarien presentzia omen da. Helmer-ren arabera, idazle honen obren inguruan honako hau esaten du: “valor casi nulo para el historiador”<sup>9</sup>. *Historia de la Villa Imperial de Potosí* bere lanean Potosi-ko guda zibilen erlazioa (Felipe IV erregearentzat, Juan de Medina agustinotarra-ren konfliktoan idatzia), Pedro Méndez kapitana *Historia Potosina* bukatu gabe utziko zuen, Bartolomé

---

<sup>6</sup> Vicente Cortesek “Fuentes documentales para la historia del País Vasco y América. Instrumentos de información”, in Álvarez-Gila, et al. (ed.), *Euskal Herria y el Nuevo mundo. La contribución de los vascos a la formación de las Américas*, Vitoria, 1996, 459-481 or., Amerika eta euskaldunen gai orokorrarekin zerikusia duten artxiboekin lantzen dituzte. Gai espezifikoaren informazio zehatza ez dute ematen, baina komenigarria da kontsultzea abiapuntu bezala izateko.

<sup>7</sup> Espainiako Liburutegi Nazionalean *Memorial de la Villa de Potosí al virrey D. Francisco de Toledo*. Martín, C.: “Vascos en Potosí: minas y mineros, según una fuente inédita de Arzáns y Vela”, in Álvarez-Gila et al. (ed.): *Emigración y redes sociales de los vascos en América*, Vitoria, 1996, 418 or. Historiako Errege Akademian, Vargas Ponce sekzioan. Potosiko probintziari gipuzkoarrak bidalitako txosten batean aipatzen du: *Relación de alborotos de Potosí*. Errege Jauregiko Liburutegian Arzáns de Orsúaren liburu batzuk aurkitzen dira aurrerago aipatuko ditugunak. Fernández-Albaladejoren, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Gipúzcoa*, 1766-1833, Madrid, 1975, 166 or. eta RAH, CVP, t. 31, 21 or. eta hurrengoak.

<sup>8</sup> Hau da, adibidez, Esparzak, Juan de Echarrenen eta bere senideen gutunak jarraitu ditu, Iruñeako Artxibategi Diozesanoan, C. 237, 3 bildutak daudenak.

<sup>9</sup> Helmer, M.: “Luchas entre vascongados y vicuñas en Potosí”, *Revista de Indias*, XX, nº 81-82, Madrid, 1960, 185-195 or.

Dueñas, José Velázquez eta Diego de Guillestegui-k *Historia de Potosi* lanaren egileak izango ziren, Juan Sobrino-k zortziko batzuk idatziko zituen izen beraren azpian.

Arzans-en arabera, lan hauek bere garaian ineditoak ziren; hauetako lanen bat aurkitzea aurkikuntza ikaragarria izango zen baina esan dugun bezala, egileen existentzia ere agerian geratzen da. *La Crónica del Perú* (1553) Pedro Cieza de León idatzitakoa, oso goiztiarra da; baina zerroan finkatu ziren euskaldunen gatazka txikiak jasotzen ditu. Sancho de Madariaga-k meatzaria, 1610 urtean bi obra idatzi zituen: *Discurso donde se consideran las diferentes calidades que se crían en las vetas que tiene de plata el gran Cerro de Potosí y que será la causa de estas diferencias, y de la manera que se deben beneficiar con informe sus calidades diferentes* eta *Memoria y orden que se tiene de beneficiar los metales que se sacaban del Cerro de Potosí en el ingenio de Sancho Madariaga, en Tarapaya y en los demás de dicha villa*<sup>10</sup>.

Antonio de León-Pinelo (XVI amaieratik 1660ra arte) idatzi zituen obra ugarien artean *Historia de la Villa Imperial de Potosí. Descubrimiento y grandezas de un rico cerro* utzi zigun, 1680 urtean Madrilén argitaratu zena<sup>11</sup>. 1624 urtean Potosi-n idatzi zen obra anonimo bat bitxiagoa zen, euskaldun eta bikuñen arteko gatazkaren momentu gorenean idatzia: *Tratado de breve de una disputa y diferencia que hubo entre dos amigos, el castellano de Burgos y el otro vascongado en la villa de Potosí, Reino del Perú*. Obra honek, XIX. mendean eginiko apokrifo bat izan leike<sup>12</sup>. Faltsifikazio bat izango ez balitz, gaztelar obra apologetiko baten aurrean egongo ginateke. Bertan, euskal gizartearen

---

<sup>10</sup> British Library, 3055 atzekaldean, 6120 or, f. 7686.

<sup>11</sup> León-Pinelo, A.: *Historia de la Villa de Potosí. Descubrimiento y grandezas de su rico cerro*, Madrid, 1680.

<sup>12</sup> 1876, urtean Madrilén argitaratu zen lehenengo aldia, *Castellanos y vascongados* (bigarren gerra karlista amaitu berria eta Euskal Foruen egoera zalantzan jartzen zenean) azpigituluarekin. Bere editore anonimoak argitaratu zuen idazki originala aipatu gabe (“Z”-rekin sinatzen zuen eta Mendozaren arabera, Justo Zaragoza “Z” horren atzean egon zitekeen). Horrekin batera, zentralismoaren aldeko jarrera plazaratzen du; datu guzti hauekin, Mendozari zalantzak sortarazten zaizkio eta horregatik faltsifikazio baten aurrean egon gaitzekela esaten zuen (Mendoza, G.: *Op. cit.*, 14, 18-19 or.). Argitalpen hau, Anselmo de Legardak ere aipatzen ohi du, nahiz eta mamian sakondu, Justo Zaragozak editore bezala ere identifikatzen du. Legarda, A.: *Lo vizcaíno en la literatura castellana*, Biblioteca Vascongada de Amigos del País, Donosti, 1953, 185, 329, 452 eta 515 or. Horrekin batera Julio Caro-Barojak Justo Zaragoza berriro ere aipatzen du; baina ez bata ez besteak obra egiazkoa edo faltsua den ez dute aipatzen. Caro Baroja, J.: *La hora navarra XVIII. Personas, familias, negocios e ideas*, Pamplona, 1969, 19-20 or.

hainbat aspektu kritikatzeko dira, esate baterako, kaparetasun unibertaria, Koroarekiko fideltasun txikia, herexiak eta abar. Oro har, Potosi-n zegoen giroa plazaratzen du. Bestetik, bikuñen zein euskaldunen kolektiboa ideologikoki legitimatzeko erabiltzen ziren arrazoiak ikusteko ere erabil dezakegu.

Jatorriaren inguruan zalantzak ez daukaten obrak baditugu ere eta gaur egun arte iritsi dira. Esate baterako, Gabriel Gómez de Sanabria 1625 urtean idatzitakoa, nahiz eta bikuñen alde egon, nahiko ondo deskribatzen ditu berak ikusitako gatazkak<sup>13</sup> eta British Library-n kontserbatzen dena eta Antonio de la Calancha elizgizona 1638 eta 1639 urteen bitartean Bartzelonan argitaratu zen “*Crónica moralizadora del orden de San Agustín en Perú, con sucesos ejemplares en esta monarquía*” ginetik ukitzen ditu gatazkak. Azkenik, Peru kolonialaren deskribapen anonimo bat kontserbatu egin da zeinean oso era motzean euskaldunen eta Extremadurakoaren arteko etsaitasuna plazaratzen da. Lan anonimo hau, Pedro de León Portocarrero-ri adjudikatzen diote<sup>14</sup>.

### 3. Mende batzuk beranduago, euskaldunen eta bikuñen alde (XIX –XX)

Aurrean izendatutako iturriak erabilita, lan historiografikoak egin dira gai honen inguruan. Hala ere, euskal kolektiboaren inguruko gai guztietan ez dute garrantzi bera izan. Nazio gerra bikuñen eta euskaldunen artean, izan da gehien landu egin den gaia. Nahiz eta denboran gertakizun mugatua izan, ez da gertakizun isolatu bat izan. Gertakizun belikoetara eramane zuten faktoreek, euskal kolektibotasunaren garapenarekin zuzenki erlazionatuta egon zen. Horren ondorioz, lan hauek, Potosi-n egon zen euskal nazioaren ikasketa osoenak bezala aurkezten zaizkigu. Bost lanek, euskaldunen eta bikuñen arteko gatazka zuzenean lantzen dute. Lan hauek, euskaldunen bizitzaren inguruan informazio gehigarria ere ematen digu. Hiru liburu eta bi artikulua dira, kontsultatu beharrekoak gai hau lantzeko orduan.

---

<sup>13</sup> Gómez de Sanabria, G.: *Relación de las inquietudes y alborotos de la Villa Imperial de Potosí, y provincia de los charcas, sucedidos y continuados desde ocho de junio de mill y seiscientos y veinte y cinco*. La Plata, 1625. Manuscrito. British Library. ES-41091-AGI-23.3.723, CHARCAS, 415, L.3, F.109 V(5)

<sup>14</sup> León-Portocarrero, P.: *Descripción del virreinato del Perú, crónica inédita de comienzos del siglo XVII*, Rosario (Argentina), 1958; eta “Descripción anónima del Perú (1600-1615)”, in Leonard, I.A. (Ed.): *Viajeros por la América Latina colonial*, Fondo de Cultura Económica, México, 1992, 95-110 or.



Lehenengo lana, Gunnar Mendozak egin zuena, hiru zatitan banantzen da. Lehenengo atal horretan, XVII. mendetik 1945. urtera arte idatzitako bibliografia orokorraren inguruan hausnartzen da era antolatu batean. Oinarrizko zatiak, 94 dokumentuko bilduma analitikoak erazten ditu (Boliviako artxibategi Nazionala)<sup>15</sup>. Bilduma horrekin, Mendozak Boliviako Artxibategi Nazionalean dauden paper guztik Potosiko gatazken inguruan gure eskura ipintzen ditu. Honekin batera, zerrenda bat ageri zaigu; gatazketan parte hartzen zuten pertsonen izenak, bere kargua eta bandoa aipatuz hain zuzen ere. Azkenik, Mendozak gertakizunei erreparatuz aipamen batzuk plazaratzen ditu. Aipamen hauetan, lizan zeuden bandoen eskema bat egiten du: euskalduna, politikoki zein ekonomikoki indartsua eta bikuñen heterogeneotasuna. Hauen artean, “soldaduak” nabarmendu behar ditugu; abenturazale erdi arloak ziren aberastasunaren bila eta euskaldunen eta gehigikerien kontra altxatu zen talde soziala. Baina atzetik gatazkek bultzatzen, bikuña aberatsak egongo ziren euskaldunak alde batera utzi nahian haien karguak eskuratzeko. Bikuñen aberatsek, euskaldunen atzera egiteak eragin zuen hasiera batean eta haien ihesaldia geroago. Bikuña aberatsak larritutak, gatazkari amaiera ipintzeko erabakia hartu zuten soldadu batzuk urkatu zituztenak eta gainontzekoen barkamena lortuz.

Alberto Crespok, Indietako Artxibategi Orokorra erabiliz errelato historiko bat eskaintzen du. Helmeren arabera, “una narración sin erudición, pero brillante y colorida, que se lee como una novela de capa y espada”<sup>16</sup>. Beraz, datuz eta informazioz betetako obra baina ez oso analitikoa. Bertan ateratzen den ondorioa gatazkaren inguruan honako hau izango zen: borrokak nahiz eta erregioen arteko gorrotoen tankera izan, txiroen (bando bikuñan) eta aberatsen (euskaldunak) arteko liskarrak, zati garrantzitsu bat izango zen. Crespori adierazpen sinplegia egitea leporatu diote: botere monopolio bat oligarkia baten eskuetan eta txiroen existentzia mantendu zen hurrengo urteetan gatazka berririk hasi gabe<sup>17</sup>. Mendozak eta Crespok, gerra hitza erabiltzen dute liskarrak izendatzeko;

---

<sup>15</sup> Mendoza, G.: *Op.cit.*, 77 or.

<sup>16</sup> Helmer, M.: “Luchas entre vascongados y vicuñas en Potosí”, *Revista de Indias*, XX, n.º 81-82, Madrid, 1960, 185 or.

<sup>17</sup> *Ibidem*, 186 or. Helmer egiten duen kritikarekin ez gaude ados: Mendozak liskarrak aberatsen eta txiroen arteko liskarretara soilik ez ditu murrizten; baizik eta bikuña aberatsak erreboltaren bultzatzaile bezala

gehiegizko hitza borroka horiek izendatzeko eta kreoleen aginte errearen kontrako altxamendu izango zela ideia izkutatu dezake. Kolonietako Independentzia Gerrako aurrekaria bezala izango balitz bezala. Bai Helmerrek eta baita Pérez de Alcalak ere, ez daude ados<sup>18</sup>: erasoak ez ziren inoiz metropoliaren zein autoritatearen kontra zuzendu (korregidorearen etxea eraso zuten euskaldunen alde egoteagatik eta ez erregearen ordezkaria izateagatik)<sup>19</sup>.

Marie Helmeren artikulua, aurreko bi liburuen atzerapen bat izango zen. Gaiaren egoerari egiten duen ekarpen positiboa, Helmerrek, krisi ekonomiko baten agerpenaren hipotesia luzatzen du borroka hastearen azken txanpa. Beraien arteko gorrotoa urrutitik zetorren; baina erasoak euskaldunen zorrak ezagutzerakoan hasi ziren, hau da, 1618, urtean. Kolektibo honek, Koroari diru kantitate handia zor zion, zilarbiziaren eta ofizioengatik. Arazoa, kolonietako politika fiskal txarraren ondorioa izan zen, kredituak ez zeuden eta Koroak zilar produkzioaren gehiegizko kantitate bat eramaten zuen bostena, zorren ordainketak zailduz. Gainera, Helmeren arabera, erasoak hasi baino lehen, zilarbiziko meategietan krisi koiuntural bat eman zen, eta produkzioa behera egiteak zilarrean eragina izan zuen. Testuinguru kritiko horretan, gainontzeko kolektibitateak euskaldunak ordezkatzeko saiatuko ziren, borrokei hasiera emanez. Lan honetaz aparte, Marie Helmerrek XVI. mendeko amaieran euskaldunen igoeraren inguruko artikulua bat idatzi zuen<sup>20</sup>.

Rosario Pérez-Alcalaren artikulua, aurreko hiru lanekin egina dago. Orokorrean, Helmeren kritikekin bat dator. Zailtasun ekonomiko globalak ez ditu zalantzan jartzen, baina aurreko krisi koiunturala zalantzan jartzen du<sup>21</sup>. Hala ere, Peter Bakewel historia ekonomian adituak, Helmeren artikulua ezagutu gabe, ondorio antzekoetara iristen da, hau

---

aurkezten ditu.

<sup>18</sup> *Ibidem*, 193 or. Pérez-Alcalá, R.: “Vicuña y vascongados: la lucha por el poder en Potosí en el siglo XVII”, *Ifigea*, V-VI, 1989, 207-215 or.

<sup>19</sup> Bikuñen nahia metropoliaren kontra altxatzearen ideia okerra, propioetan suspertu daiteke ideia hori: garai horretako idazle euskaldunek, aurrean zuten bandoa desprestigiatu nahian, bikuñei Koroaren agintearen kontra joatea leporatu zieten nahiz eta konfliktoaren mamia beste arrazoi batzuetan egon.

<sup>20</sup> 1595 urtean bidalitako gutun bizkaitarraren transkripzioa eta komentario bat omen da: Helmer, M.: “Un tipo social: el minero de Potosí”, *Revista de Indias*, XVI, 1956, 85-92 or.

<sup>21</sup> Pérez-Alcalá, R.: *Op.cit.*, 207-215 or.

da, 1615etik zilar produkzioa Potosin behera egin zuen euskaldun aberatsen kontrako gorrotoa handituz<sup>22</sup>. Egoera ekonomikoa alde batera utziz, Pérez-Alcalak boterearen kontrola eskuratzeko egon ziren borrokak nabarmentzen ditu. Errebolta honen oinarrizko bultzatzaile izkutuak bikuña aberatsek izango ziren, oligarkia euskalduna ordezkatzeko saiaturako ziren. Horretarako, aurreko tentsioetatik bailatuko ziren nahiz eta gatazkaren azken aldian haren gaineko kontrola galdu izana. Azkenik, inperioaren eta unibertsitatearen arteko dinamikak nabarmendu behar dugu. Hau da, unibertsitate penintsularretan nazioen arteko etengabeko gatazkak, nazio hauen eliteak Potosira eramatea eta bertan iraulketa bat egotearen hipotesia. Hau da, penintsulako unibertsitateetan nazioen artean ematen ziren liskarrak baliteke Potosira eramatea. Hipotesi hau egiaztatzeke erabiltzen dituen datuak, eztabaidagarriak iruditzen zaizkigu; hala ere, bere proposamenak ikerkuntza marra interesgarri batzuk irekitzen ditu unibertsitateko mundua eta penintsulako kolektiboen bizitza penintsulatik kanpo erlazioak ezagutzeko.

Seigarren lan bezala, Jose Mari Esparzaren obra aipatu behar dugu. Eleberri historiko bat omen da; lehen mailako iturriak eta garaiko informazioa erabiltzen ditu. Juan de Echarrenen historia narratzen digu Goi Nafarroatik Peruraino bere pausoak jarraituz. Eleberri honek, Potosin eman ziren oinarrizko liskarren informazioa luzatzen digu. Nahiz eta Esparzak hipotesi formal bat ez garatu gatazken arrazoiak emateko, bikuña aberatsak euskaldunak ordezkatzeko nahia nabarmentzen du borroken oinarrizko ondorio bezala<sup>23</sup>. Gatazkak amaitu eta geroko garaiko bibliografia espezifikoa ez dugu aurkitu. Gatazkak bertan behera gelditu zirenean, euskaldunek boterea berreskuratu zuten baina xehetasunak ez ditugu ezagutzen. Esparzak, hurrengo hamarkadak gainetik ukitzen ditu. Serranok, dokumentazio zehatzagoarekin, 1637 urtean extremadurako eliteen eta euskaldunen artean tentsioak nabaritzen ditu. Adierazgarriena bandoen borroken gaian, episodio horrek

---

<sup>22</sup> Bakewell, P.: *Plata y empresa en el Potosí del siglo XVII: la vida y época de Antonio López de Quiroaga*, Diputación Provincial de Pontevedra Departamento de Publicaciones, Pontevedra, 1988, 36 or.

<sup>23</sup> Serranok aipatzen dituen Salamankako borroka unibertsitarioak garai berdinean gertatu ziren, beraz, aurrekari bat ez zen izan. Gainera, Serranok ez du aipatzen buruzagi bikuñak edo euskaldunak bere gazterian holako erreboltetan parte hartu zutenik. Oscar Álvarez-Gila beste hipotesi bat plazaratu zuen: baliteke nazioen arteko bortizkeria Monarkiaren puntu batean hastea, bai Salamancan bai Potosin eta euskaldunak zein gaztelarrak elkarbizitzen ziren tokietara tentsio hauek zabaltzea. Aurrekari unibertsitarioa ez zen egongo eta errepikapen bat urte batzuk pasa ondoren Indietan, bazik eta sare dinamiko bat Monarkia Hispanikotik aldi berean zabalduko zen. Hipotesi honek, Serranorena ez du kanpoan usten.

euskaldunen bizitzaren inguruko historiografia osoa batu egin duela.

Hala ere, iturrien atalean aipatzen genuen bezala, liskarretaz aparte, kolektibo euskaldunaren lehenengo pausoak Potosin aztertu ahalko ziren edota bere iragana borrokak eta gero; oparo jarraitzen izango zena<sup>24</sup>. Ikerketa hauek eginak ez daudenez, gure gaiaren egoera borroken gaiara zuzendu egin dugu.

#### 4. Potosiko mendiaren magalean

Gatazka hauek, gaur egungo Bolivia hegoaldean ematen dira 1622tik aurrera Potosiko hirian hain zuzen ere. Potosiko muino aberatsa lau mila metrotara itsas mailatik kokatuta dago, beraz, bere aurkikuntza ez zen izan bat ere erraza; muinotik hiru kilometrotara giza asentamendu hurbilena aurkitzen zen. Muino aberats honen aurkikuntzaren inguruan, kontakizun tradizional bat zegoen, esate baterako, indio batek aurkitu zuen eta bere jabe espainolari aitortu zion bere aurkikuntza. Hala eta guztiz ere, seguruenik zilarrezko muino honen kokapena Inka inperiotik ezagutuko zen baina garai honetara arte ez zen ustiatuko, hau da, 1545. urtera arte. Bertatik denbora gutxira, muinoaren behealdean asentamendu bat sortuko zen eta 1574. urtean 120.000 bizilagun izango zituena<sup>25</sup>.

Bertan aurkitu ziren zilar meategiak 1575 eta 1592 urteen bitartean 220 tona zilar eman zuten; zilar produkzioa mantendu zen 1620 urtera arte eta hortik aurrera 1710.era jo behar dugu horrelako produkzio zenbakiak topatzeko. Hasiera batean, meategi hauek, Andaluziako eta Extremadurako soldadu aberatsen eskuetan zeuden. Espainiako gizarte estamentalean hezituak zeudenez hasieratik meategien kudeaketarekin bat zetorren jarduerak egiten zituzten. Soldaduak zirenez, meategi horietako aberastasunak gerrako botina bezala ikusten zuten probintzia horiek konkistatzen lagundu zutenaren truke. Indietara ailegatu ziren espainol guztiek bezala, bere kaparetasuna aldarrikatzen zuten

---

<sup>24</sup> 1658 urteko testigantza Potosiko muinoari Aranzazu deitzen zioten, XVII mendeko bigarren erdialdean euskaldunek mantentzen zuten garrantziaren froga izango zena. "El viaje de Acarate du Biscay", in Leonard, I.A.: *Viajeros por la América Latina Colonial*, México, 1992, 116-129 or.

<sup>25</sup> Otazu, A. eta Díaz de Durana, J.R.: *El espíritu emprendedor de los vascos*, Madrid, Silex Universidad, 2008, 273 or.

nahiz eta bere jaioterrietan “pechero” errolden partea izan<sup>26</sup>. Honako egoera hau, Arzans de Orsua tokiko kronistak (“criollo”-a zena eta Andaluzen semea), ironikoki honela idatzi zuen: “1555.urtean Potosiko hirian, 4.000 espainol zeuden eta guztiak nobleak ziren; Espainian soilik jaiotzeak noblea izatearen seinalea izango balitz bezala”<sup>27</sup>.

1561. urtean, Potosiko asentamenduaren bizilagunek, ahaldun (“apoderado”) bat bidali zuten Limako hirira dohain eskuzabal baten bitartez jurisdikzio propio bat eskuratzea lortu zezan erregeordearen eskutik. Urte horretako udazkenean, lortu zuten nahi zutena, hau da, Potosi “hiribildu” bilakatzea; geroago Potosiko “Inperiala” ere izatea. Jurisdikzio berri hau, bi alkateren eskuetan egongo zen eta sei korregidore izango zituen. Bi alkate horietatik bat euskalduna zen, esate baterako, Joannes de Aguirre; eta sei korregidoreetatik beste bat, Juan de Goycurria, ere bazen. Hasitako hamarkada honetan ere, Diego de Mendietak, Orduñakoa zena, zilarra ahalmen handienetarikoa zuen meategia eskuratu zuen. Paragrafo honetan ikus dezakegunez, XVI. mendearen erdialdetik euskaldunak gobernu zein administrazio lanpostu garrantzitsuetan aurki ditzakegu<sup>28</sup>.

Euskaldunen presentzia gero eta nabariagoa eta handiagoa izango zen politikan zein meategietan. Lehenengo liskarrak, penintsularren eta euskaldunen artean 1581.ean emango ziren. Martin Garcia de Loyola-k 1579an Justizia Nagusiaren kargua eskuratu zuen. Arzans berak Loyolari euskaldunen alde egitea leporatzen zion bera Epaile Nagusia izanik eta bere kargua aprobetxatuz. Bertan, euskaldunak beste nazioekin liskarrak izaten hasi zirela zioen; aberastasunaren lelopean. Gainera, errege-alfereza Juan Ortiz de Zárate bizkaitarra zen. Beraz, honen arabera, euskaldunen presentzia nabaritzen hasia zen jada. Hala eta guztiz ere, Loyola-k egonkortasun soziala mantentzea lortu zuen nahiz eta 1581.ean egoera okerrera jo. Urte honetan, Enríquez erregeordearen kargu-orri batzuk jaso zituen. Kargu-orri horien arabera, 200 gizonen leba bat egin behar zuen Txileko espetxetara bidaltzeko. Berriz, Arzans-en eskutik honako hau iristen zaigu:

*“Parece ser que el general Martín estaba mal con las naciones de extremeños y andaluces;*

---

<sup>26</sup> *Ibidem*, 275 or.

<sup>27</sup> *Ibidem*, 275-276 or.

<sup>28</sup> *Ibidem*, 276 or.

*y como de estas dos naciones hubiese muchos hombres, poniendolos en lista entresacó hasta 100, y luego fue repartiendo entre los demás habitantes de la Villa, de suerte que les cupo a mucho menos”.*

Leba ezberdintsu honek, Extremadurako eta Andaluziako jende artean nahigabea hedatu eta jeneralak espetxeratu zituen. Andaluziakoak, Extremadurakoak eta kreolak batu ziren eta Loyola jenerala mehatxatu zuten espetxetik aterako zituztela esanez (haien plana espetxearen barnean sute bat antolatzea ihes egiteko zen). Baina gau horretan, erregeordearen korreo bat iritsi zen behar zituen tropak ahalik eta lasterren Txilera bidali zezan. Loyolak behartuta ikusi zen eta leba berri bat egin zuen; orain bai penintsular guztiak hartuz eta kreolak ere barnean sartuz<sup>29</sup>.

##### 5. Euskaldunen hasierak Potosi-n

Lehen aipatu ditugun gertakizunak geroago emango zirenekin konparatuz, ez zuten garrantzi handirik. Hala ere, nabarmendu behar dugu euskaldunak eta gainontzeko nazio penintsularren arteko lehenengo liskarrak izan zirela. Esan beharra dago, urte horietan euskaldunen immigrazio handiena eman zela eta oraindik meategien kontrola eskuratu ez zutela. Arzans-en arabera, euskaldunak gurdi eta zalditeria karabana luze bat zen, zeinean, mandazain, komisiio-hartzaile, tratulari eta merkatari ugari zeuden; haien gurdietan merkantziak ekartzen zituzten meategi kokalekuaren biztanleriari saltzeko helburuarekin. Beraz, Arzans-en deskribapen honen bitartez, euskaldunak Potosira lehenengo meatzari bezala ez zirela iritsi baizik eta merkatari soil batzuk bezala ondorioztatu daiteke<sup>30</sup>.

Arzans-en fidagarritasuna ez da bat ere ona, baina espedizio honen buru bezala fikziozko pertsonaia bat jartzen du, esate baterako, Egido Oxonemun. Fikziozko pertsonaia honek, benetako bi pertsonetan oinarrituta dago: Domingo de Verasatequi eta Francisco Oyanume. Bi euskaldun hauek, Ortiz de Sotomayo-ren aginpidean (1608-1617), meatzariak eta aberatsak ohi ziren<sup>31</sup>.

---

<sup>29</sup> *Ibidem*, 278-279 or.

<sup>30</sup> *Ibidem*, 280-281 or.

<sup>31</sup> *Ibidem*, 281-287 or.

Harira itzuliz, euskaldunen hasiera Potosi-n argiak dira. Euskaldunak Potosi-n merkatari moduan finkatu ziren Europatik ekarritako ehunak salduz. Denbora pasa ahala eta lortu zuten aberastasunarekin, meategiak eta ingenioak eskuratu zituzten. Euskaldunak, penintsularrak ez bezala, abantaila batzuekin kontaktzen zuten meategi eta ingenioen inguruan. Crespo-ren arabera:

*“los vascos además de ser más inclinados al trabajo y perseverantes en sus esfuerzos que el resto de sus convecinos, fueron los que pusieron las bases de la industria minera porque poseían ya una vasta experiencia en ese trabajo”*

Euskal Herrian, burdinoletan eta burdin galdaketetan aspalditik energia hidraulikoa erabiltzen zen eta lana gabien bitartez egiten zen. Dirudienez, burdinola hidraulikoa Euskal Herrian XIII. mendean ezarri zen, hau da, Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan; euskal burdinola gehienak ibai ertzetara eta teknika hau erabiltzen zutela burdina lantzerakoan<sup>32</sup>. Beraz, ez da harritzekoa XV. mendearen bigarren erdialdean, Potosi-ra joan ziren euskaldunak gabien teknika eta energia hidraulikoa ezagutzen zutela. Hori dela eta, gehiago inplikatu ziren teknologia hau ingenioetan martxan jartzeko. 1585 eta 1620 urteen bitartean, Potosi-n zeuden meatzari euskaldun gehienak Goi Debatik zetozen (zonalde horretan burdinola ugari zeuden). Emigratu zutenen artean, klase ezberdinetako jendea zegoen adibidez ahaide nagusien ondorengoak<sup>33</sup>.

## 6. Euskaldunen barne kohesioa

Hiru edo lau meatzari aberats horien atzean, euskal koloniaren gainontzeko biztanleria bizi zen. Gainera, garai horretako Peru-n soldaduen klasearen barne ez zen inor gelditu; esate baterako, iturri anonimo batek honela deskribatu zituen soldadu moduan ezagutzen ditugunak:

*“Pobres soberbios que, ya que no pueden morder, ladran, y siempre andan con la cabeza baja mirando donde pueden hacer presa, ni se quieren sujetar, ni hay razón con ellos. A esta gente tal llaman soldados, no porque lo sean, sino porque son bien andantes de unos*

---

<sup>32</sup> Bilbao Bilbao, L.M.: “Introducción y aplicaciones de la energía hidráulica en la siderurgia vasca, siglos XIII-XVII”, *Studia historica. Historia moderna*, 5, 1987, 61-74 or.

<sup>33</sup> Otazu, A. eta Díaz de Durana, J.R.: *Op.cit.*, 283 or.

*lugares para otros, siempre con los naipes en las manos, por no perder ocasión de jugar con cuantos topan... Es gente que no quieren servir. Todos andan bien vestidos, porque nunca les falta una negra o una india y algunas españolas, y no de las más pobres, que los visten y dan el sustento, porque de noche las acompañan y de día las sirven de bravos”<sup>34</sup>.*

Soldaduak kanpamendu-meategi erraldoi horren inguruan ibiltzen ziren; zeinena XVII. menderako hiri baten antza hartu zuen. Hauek, Espainiatik iritsi ziren txirotasunetik eta gizarte estamental baten hierarkizazio zorrotzetik ihes egiten eta azken batean sinetsiz Peru-n zegoen urrea eta zilarren jabeak izango zirela. Edozein kalte estametaletik aske zeudenez jatorrian, Potosi-ko euskaldunak, Indietako beste batzuk bezala, zerbitzatzeko ez zuten arazorik; hau da, beste pertsona batzuentzako lan egitea, jarduera horren kontrola eskuratu arte. Merkatari, meatzari edo zilarbiziak, haien jaioterri berbera zuten biztanleri nukleoa nahiago zuten beraiekin lan egiteko orduan; eta gainontzeko penintsular aberatsak ez bezala, ez zuten zalantzatzen iritsi berriak haien zerbitzura jartzeko orduan, merkatari bezala ferietan edo merkatuetan eta beste lanetan esperientzia zutenak ere (meatzariak). Oro har, Amerikako beste lekuetan bezala, Potosi-ko euskaldunak, beraien artean biltzeko jainkozale eta hizkuntza oinarri berezi bezala erabili zuten. Hausbergerr-ek, 1589 urtean Nuestra Señora de Aránzazu-ko kofradiaren eraikuntza kokatzen du Potosi-n<sup>35</sup>. Horren arabera, jakin dezakegu, Potosi-ko euskal kolonia Peru-ko garrantzitsuena zela ordurako; Lima-ko kofradia hogeit beranduago eraiki egin zen, 1612 urtean hain zuzen ere. Potosi-n, beste lekuetan bezala, frantziskotarren komentuan kokatu egin zen; honako hau, 1548 eta 1552 bitartean eraiki zen. Dirudenez, eliza komentual honek, nabe bakar bat izan zuen urte askotan zehar; bitartean euskaldunak, itxaroten egon ziren berea eraikitzeko baimenaren zain. Seguruenik, 1601ean emango zen honen eraikuntza; ermandadearen konstituzioetan data hori agertzen zaigu. Arzans-en arabera, euskaldunak San Francisco-n ez zuten inoiz kapera propio bat izan baizik eta alde batean albo aldarean:

*“ Sabida cosa es que, en todos los reinos de la España tienen los vascongados esta hermandad y cofradía fundada en San Francisco, y en esta villa también la tuvieron en esta misma iglesia, a lo menos sin hermandad porque esperaban fabricar una capilla*

---

<sup>34</sup> *Ibidem*, or. 301.

<sup>35</sup> *Ibidem*, or. 302.



*capaz para colocar la santa imagen de Aranzazu, que solamente tenía su altar adonde los sábados de la semana le cantaban su misa para lo cual se pedía limosna en la villa”.*

Lehen esan bezala, 1601ean arautu eta erregulatu egin zen ermandadean sartzeko baldintzak:

*“Nadie ha de ser admitido en la hermandad sin que primero muestre... cómo es nacido en las provincias vascongadas, o que es de padres y abuelos vascongados”.*

Antzeko ermandade sortu ziren beste lekuetan bezala, Potosi-n helburua euskaldun behartsuenak zaintzea omen zen, oro har, iritsi berriak ziren:

*“Si algunas personas vinieren a esta villa pobres y con necesidad, como suele suceder, los representantes de la hermandad les provean de remedio, para que la necesidad no les obligue a degenerar sus obligaciones”<sup>36</sup>.*

Aranzazu-ko Ermandadeak ere, euskaldun txiro eta gaixo batek karitate publikora ikusgai egotea saihestuko zuen edota euskaldun baten gorputza lurperatu gabe gelditzea. Ermandadeko kide batek delitu bat egiten bazuen, ermandadeak lagundu behar zuen gizarte publikoan garrantzi handirik ez hartzera. Hori dela eta, Hanke eta Mendoza-k honako hau bildu zuten:

*“Si algún vasco cayere preso por algún caso criminal atroz, se le favorezca procurando su libertad y descargo y si fuese por deuda civil, se le ayude en la caja de hermandad con lo bastante”<sup>37</sup>.*

Zalantzarik gabe, jarduera hauekin, Potosi-ko gainontzeko biztanleak euskal kolonia gauza homogeen bat bezala ez ikustea zaila bilakatuko zen; haustura gabeko gorputz bat bezala. Beraz, euskal kolonia honek ematen zuen kanpo itxura honekin, gainontzeko biztanleriaren gorrotoa eta inbidia batuko zuten berauegan. Sevilla-n edo Lima-n bezala, Potosi-ko Frantziskotarrak, euskaldunen limosnaren zati handienez onura aterako zituzten. Honako hau, dirudienez frantziskotarren faborea eskuratzeko izango zen;

---

<sup>36</sup> *Ibidem*, 302 or.

<sup>37</sup> *Ibidem*, 303 or.

elizgizon hauek, Potosi-n kokapen zentral bat zeukaten. Haien komentuan, esate baterako, hiribilduan zilarbiziko gremio boteretsuenak biltzen ziren. Baina, erlazio orekatu honek, 1622. urtean eragozpen larri bat jasan zuen. Arzans-en arabera, 1622 urtean, andaluziarrak eta euskaldunak Potosi-n liskarretan ibiltzen zirenean, “sucedió que, retirándose de los peruanos y andaluces tras una pequeña batalla campal, los vascos tomaron por amparo el convento de San Francisco”<sup>38</sup>. Baina egun horretan, aita zaindaria fray Ginés de Dueñas ez zegoen eta bere ordezkaria Andaluziako zen; honek, euskaldunak komentutik bota zituen. San Francisco-tik kanporatutakoak San Agustin-era joan ziren, agustinoen komentura. Bertan euskaldunak haien haziendekin jaso izan ziren eta agustinotarrak babestu egin zituzten. Harrera bero honek, gerra zibil horretan zehar arrisku kasuan edozein euskalduna San Agustin-en asilo bilatzea bultzatu zuen.

Arzans-en kontakizun hau, 1658 urtean aurkitutako testigantza batek berresten du; Pedro de Luyando San Agustin-en itxieran parte hartu zuen kleriko batek. Luyando-k arabarra zen jatorriz eta 1622 urteko udaberriaren amaieran Potosi-n zegoen, Ortíz de Zarate-ren senidea zen, Mendieta zerroren jabeak. Luyando-k, Potosi-n bandoen arteko liskarren eztandak ustekabean harrapatu zuen eta kaltetuta sentitzen zen; Koroari naipearen errentatik zeukan zorra kitatu zuen, hau da, 18.000 peso jada ordaindu zituen. Dirudienez, Luyando honek, gehien gorrotatzen zuten euskalduna zen; bere aberastasunaren jatorria izendatzeko “*el naipero*” erabiltzen zuten.

Hala eta guztiz ere, haren oroitzapenen arabera:

*“dicho día seis, de junio sucedieron en Potosí las sediciones y alborotos, tan sabidos y notorios en todas partes, y en particular en el Consejo de Indias entre vizcaínos y más conocido, y de más autoridad y caudal, fue más perseguido que otro alguno, y se le saqueó su casa, obligándole a retraerse en el convento de San Agustín de Potosí hasta fin de dicho año de 1622 y no teniendo seguridad en él, le fue preciso dejar su casa, caudal y hacienda y salir de Potosí y provincia de las Charcas”*<sup>39</sup>.

San Francisco-ko aita zaindaria itzuli zenean, Andaluziako klerikoa kaleratu zuen

---

<sup>38</sup> *Ibidem*, 303 or.

<sup>39</sup> *Ibidem*, 304 or.

eta saiatu zen euskaldunak itzularazten. Hala ere, euskaldunak ez ziren itzuli eta San Agustin-en gelditu ziren eta denbora igaro ahala kapera zein ermandadea eratu zuten. San Agustineko Aranzazu-ko irudia Bizkaiko benetako iruditik kopiatu egin zen. San Agustin-eko kofradeek, Juan de Urrutiak 1646 urtean Limako ermandadera eraman zuen irudia kopiatu egin zuten. Frantziskotarren komentutik agustinotarren komentura Aranzazu-ko ermandadea eramateak, euskal kolonien lehen integrazio eredu hautsi zuen. Eredu honek, Flandes-eko garaietatik, Frantziskotarren eta euskal ugazaben arteko harremana indartu zuen kultu ezberdinekin. Honako hau, 1622 urtean puskatu egin zen. Hortik aurrera, euskaldunek agustinotarrak ezagutzen joan ziren eta bere alde masiboki egiten zuten; 1626 urtean Cadiz-eko euskaldunek bere ermandadea San Agustin elizan eratzearen arrazoia horretan aurki dezakegu. Honek esan nahi du, XVI eta XVII mendeen bitarteko euskal merkataritza sareak guztiz artikulatuak zeudela. Seguruenik, Sevilla edo Cadiz-en bere oinarriak izanik. Beraz, Potosi-n gertatu zena laster Cadiz-en bere eragina izango zuen<sup>40</sup>.

Alberto Angulok dioen moduan, Amerikako hirietan Aro Berrian aurkitzen ditugun jatorrizko edo nazioen ermandadeek protagonismoa hartzen dute. Nazio euskalduna eta nafarroako San Ferminen Errege Kongregazioa migrazio prozesu hispanikoan Erdi Aroko nazio zaharrek jokatu zuten papera adierazten dute, makineri inperial burokratikoaren elikatuz, proiektu komertzialen garapena edo irabaziak inbertituz hiri eta herri espainioleko bizitza erlijiosoak diru laguntzak emanez eta moldatuz. 1500 urtetik, iparraldekoen edo kantabroen presentzia Iberiar Penintsulan konstantea izango da. Bigarren hidalgoek imaginatzen zuten aberastasunak, Potosi zaharrean eta berrian, 1600 milurte ilunan zehar luzatu egin zen. Kapitalaren banaketa edo pilatutako aberastasuna ohiko kezka bat zen herrikide, senide, lagun eta bizilaguneei haien ezaguneetatik eta senideetatik irizten zintzaien berriak Indietatik. Koroaren baimenarekin eta lau urteetan zehar, 1695 eta 1726, Madriletik limosna bilketa egon zen Indietan, San Ferminen Errege Kongregazioak antolatu zituen. Jatorri nafarra zuen elkartearen lurralde inperialean txertatzen da haren patroientzat tenplu bat eraikitzearen finantziarioaren bila.

---

<sup>40</sup> *Ibidem*, 305 or.

Kofradia hauek, identitate ezaugarriak (aitortzapen eta politikoa) Erdi Aroko elkartzeko ipar-etnikotik elikatu ziren. Nafarrako adibideak, egituraketa etniko bat erakusten du inperio baten lurralde bat hartu eta sare globalak era ditzakeena, interes partikularretan eta ezaugarri kulturaletan oinarrituta; honek, haien kofradeei posizio sozial eroso eta ohoretsua izatea ahalbidetu zuen. 1684. urtean San Ferminen Errege Kongregazioa jaio zen hiribilduan zein Madrileko Gortean iparraldeko emigranteen protagonismoa adieraziz. Haien elkartzeko interesak babestu arren, erreinuaren ohorea ere babestuko zuen. San Ferminen kofradeek Erreinuaren instituzioei egindako baimena eta babeska eskaera formala nahiko adibide adierazgarria da. Euskaldunen huts egindako proiektua 1683 urtean, hiru probintzietako organo politikoek kongregazio eta ospital bat Madrilen izatea eskatu ohi zuten. Ideia honek, Francisco de Zabalak eratu zuen, Bizkakiako agentea Madrilen 1677 urtetik, arrakasta izan ez zuena. Elkarte etniko hauek Errege baimenak aprobetxatu zituzten kanpainak bultzatzeko; kanpaina hauek, Indietako lan ohoretsuenak zeuzkaten herrikideak eta gizon aberatsekin batera egituratu zituzten.

Hiru diputazio euskaldunen eskaera, kongregazio edo ospital bat haien herrikideak inperioan zehar asentatutak zeudenak laguntzeko eta batez ere Madrilen, probintzien arteko lehenengo akzio koordinatua berresten zuen. Ekimen publiko eta politiko honek, probintzien gorputz legislatiboa aurrera eramandakoa babesgabe herrikideak laguntzeko, ikuspegi global bat barneratzen du zeinean inperioan zehar zeuden emigranteen kontrol eta babes politika bermatu nahi zen. Proiektu honek, gazteen prozesu migratorioa kontrolatu nahi zuen. Kokatze agentzia bat lurraldeko autoritateek kudeatuko zuena. Autoritateak gero eta arduratuagoak zeuden Gaztelatik eta Indietatik haien gazteetatik jasotzen zuten berriengatik (epaiketak). Nahiz eta 1683 urteko memoriala elkarte hauen helburuak plazaratu, autoritate probintzialaren ikuspuntutik, proiektua kartzelan sartzen ari ziren gazteak eta eskaletasunera bideratuak, eta horrek sortarazten zuen irudi publikoa hobetzearen helburua zuten. Laguntza ardura eta probintzia hauetako emigranteen irudi juridikoaren defentsa batzen ziren. Kaparetasun unibertsaleko lelo zaharrak eta odol garbitasunak ez zen bat etortzen kartzeletan eta hospizioetan zeuden gazte hidalgo horiekin. Elkarte hauen helburuen kudeaketarentzat ingurugiro apropos bat behar zuen.

Kantabriako Hiru Probintzietako Herrikide eta Jatorrizko Erreal Kongregazioaren proiektuak eta geroago San Ignazioarena 1713 eta 1715 urteen bitartean ematen da.

Emigratu zuten herrikide eta senide horien goranzko ardura, 1683 urteko proiektutik, Euskal eta nafar emigranteen jatorrizko norabidearen aldaketa adierazgarri bat erakusten du. Orubeak eta familak ez zuen babestuko bertara joan ziren pertsonak. Iparraldeko emigranteen koloniak Perun edo Madrilen organizazio hauek aprobetxatu zituzten (asistentzialak eta mesedegarri) zehaztugabeko bereizitasun judiriko eta identitarioen defentsan. Ozeano Atlantikoan komunikazio, informazio eta elkarlaguntza marko bat ikus dezakegu emigranteen artean (Penintsula eta Indiak) eta jatorrizko gobernu instituzioen artean. 1600eko azken hamarkadeetatik erlazio transatlantiko honek izaera instituzionalagoa hartzen joan zen, kofradia nazional hauek, espazio egoki bat aurkitu zuten haien egituraketarako eta garapenerako. Komunikazio atlantikoko dialektika hiru Euskal probintzietara lotutako egituraketa bat utzi zuen. Kofradien eta kongregazioen arteko harreman luzea, Erdi Aroko nazio zaharren migrazio beharren efektu zuzena omen da. Batez ere, baliabideak ez zituzten emigranteenak (materialak, finantzieroak, pertsonalak) kargu on batean ezartzeko<sup>41</sup>.

## 7. Bikuñak

Euskaldunak eta bere aliatuak talde finko eta homogeen bat eratzen zuten, hau da, kanpoarekiko hausturarik ez. Hauen aurka bikuñatarrak altxatuko dira; seguruenik, komunean soilik euskaldunei boterea eta aberastasuna kentzea indarkeriaren bitartez izanik. Bikuñatarren artean barne homogeneotasuna bilatzea bere jatorrian porrotera bideratuta dago. Horregatik, XVII. mendearen lehen herenean, 150.000 bizilagun inguruko Potosi-n, jatorri eta arraza ezberdineko biztanleria zegoen: interes kontrajarriekin eta erlazio batzuetan zailarekin zerro aberatsetik ateratako aberastasunaren inguruan. Honek, Potosi-ko biztanleriaren artean ezberdintasunak sortzen zituen. Ideia eta testuinguru horrek izan behar da gure abiapuntua. Hasieratik, hau da, 1622 urteko udan eman ziren gertakizunen inguruan, ezberdindu behar ditugu “*vicuña mangante o gordos en riqueza*”

Arzans-ek deituko zituen eta “*vicuña común o soldado*” artean.

Beraz, hemen ditugu bikuñatar lapurrak; hogeitau bat ziren eta haien jatorria penintsulan zegoen, oro har, gaztelatarrak edo galiziarrek, meatzari aberatsak, kargu publikoen pilatzaileak eta euskaldunen kontra berdintasunean Hausberger nabarmendutako gauza batean izan ezik: “nunca tenían parte en el beneficio del mineral monopolizado por los llamados azogueros”; hau da, zilarbiziko gremioaren parte ez ziren eta hauen diputatuak euskaldunak ziren normalean. Beraz, bikuña lapur hauek, aitzakia argi bat zuten euskaldunen kontra jotzeko; gremio lehiakortasunean ibiltzen ziren aspaldi eta kaltetuak sentitzen ziren erregeordearen administrazioaren karguetan zein hiribilduko kapituluetan. Arzans-ek bikuña arrunten altxamenduaren errudunak bezala identifikatzen zituen. Crespo-ren ustez, Potosi-ko izena:

*“había atraído a un mundo de aventureros; antiguos soldados sin ocupación ahora que la tierra estaba sometida y había concluido la etapa de los descubrimientos; vagos y buscavidas; hombres que habrían conquistado un reino a la cabeza de cien soldados, pero que eran incapaces de descubrir una veta en el Cerro y más aun trabajarla; truhánes y picaros. Al lado del minero que pugnaba por vonbertirse en noble, convivía el fraile azuzador a la revuelta o el espadachín sin otro agán que probar su destreza para las armas adquirida en Flandes o en Italia”.*

Azken batean, bikuñen oinarria mespretxuzko hitz honekin izendatzen zuten jendea, hau da, soldaduak<sup>42</sup>. Pertsonai hauek, lanaren hasieran aipatu ditugu; penintsularrak edo mestizoak izaten ohi ziren, beti kexaka ibiltzen ziren Zeroko aberastasunetik at gelditzeagatik. Hauen artean andaluziarrak, Extremadurakoak eta mantxatarrak nabarmentzen ziren gaztelar eta galiziarrekin batera. Crespo-k gehitzen du: “desdeñaban el sedentarismo que conllevaban las labores mineras y eran unos inadaptados respecto al sórdido ritmo de los negocios de la villa”. Haien aberastasun erraza nahiago zuten. Beste aldean eta gorrotatzeko aberats bezala euskaldunak agertuko dira. Fernando

---

<sup>42</sup> *Ibidem*, 309 or.

Serrano-k aipatzen zuen 1623 urteko zita batean honako hau plazaratzen zen<sup>43</sup>:

*“la tierra sei ba hinchiendo de gente suelta que cada año iban entrando de abaxo y de España a esta villa, paradero de todos los pobres. Éstos, de los ricos, por antigua costumbre y riesgo de sus haciendas, sufrían sujeción. No la querían sufrir y, considerando que no tenían más que la capa al hombro, comenzaban a tener algunas pendencies los vizcaínos”*<sup>44</sup>.

Tropa honi, laster kreolok gehituko ziren, mestizoak ere, euskaldunen eskuetatik mespretxatuak sentitzen ziren eta segur aski arrazoa zeukaten. Arzans-ek, kreol bera izanik, kreol baten ahotan alegiazko diskurtso bat jarriko zuen baina XVIII. mendeko Potosiko baten memoria historikoan euskaldunekiko erremina:

*“En todas ocasiones nos han estimado andaluces, extremeños y castellanos...mas estos vizcaínos ¿por qué, pues, quieren alzarse contra nosotrotos... aborreciendo el nombre de criollos, injuriándonos, pues no tienen otro título que darnos más de solos mestizos bárbaros?”*.

Diskurtso honek, euskaldunen eskergabetza plazaratzen eta pilatzen ari ziren aberastasunak ere amaitzen zen esanez lehenengo euskaldunak Potosiko emakumeekin ezkontzeko ez zutela jarri inongo arazorik. Bikuñen beste zati bat, portugesak osatu zuten, hasiera batean bikuñekin batu ziren baina momentuaren arabera bandoz aldatuko ziren; geroago ikusiko dugunez kolonia oso kohesionatua eta nahiko handia. Arzans-ek, 30 baino gehiago izango zirela esaten zuen eta bikuñekin batu zirela euskaldunek beraietako sei kide hil zituztelako. Arzans-en arabera hartu zuten izena “*Tocino*” izan zen. Hitz honen bitartez, Peru-n zeukaten erreputazio kriptojudutarra ukatzeko erabili zuten; haien jatorria zikina gehitzen zitzairen. Indietara era masiboan etorri ziren Inkisiziotik ihes egiten. Horrela, euskaldunen etsai guztiak bando batean bilduta adostu omen zuten, “que todos se llamasen castellanos, aunque eran de diferentes naciones, también de ponerse todos sombreros de lana de vicuña de la más encendida y cintas nácares por divisa con flecos de

---

<sup>43</sup> Serrano, F.: *Vascos y extremeños en el Nuevo Mundo durante el siglo XVII: un conflicto por el poder*, Asamblea de Extremadura, Mérida (España), 1993.

<sup>44</sup> Otazu, A. eta Díaz de Durana, J.R.: *Op.cit.*, 310 or.

la misma lana delgadamente hilada para conocerse”. Eramaten zuten kapela hauengatik bere izendapena bikuña izan zen. Seguruenik, bikuñei batasuna ematen zien gauza bakarra eramaten zuten kapela eta haien leloa: “viva el rey, mueran los vizcáinos”. Arzans-en arabera, bikuñak denbora gutxian barne liskarretan hasiko ziren; lehenengoa aginpide bakarraren beharrarena izanik:

*“Porque los criollos querían que el jefe o capitán general fuese criollo, los andaluces andaluz, y así las demás naciones, y por esto no sólo fueron las guerras con los vizcáinos, mas también unas con otras aquellas inconformables naciones que cada cual quería mandar la gente absolutamente y por esto se mataban o herían”*<sup>45</sup>.

Hala eta guztiz ere, bikuñatarren bandoan hainbat buruzagi edo kapitainak agertuko ziren, gatazka zibiletan bereganatutako ospeari esker. Luis Antonio de Valdivieso bat izan zen, ez dakigu andaluziar, extremadurakoa edo galiziarra izan zenik baina beretik bai daukagula Potosi-ra iritsi zenean bere bizitza inguruko pasarte batzuk. Hausberger-en arabera, Valdevieso-k Espainia Berrira 1603 urtean pasa zen Montesclaros erregeordearen zerbitzari bezala:

*“Probablemente siguió a su patrón al Perú en 1607, por lo que, en 1616 se encontraba como alcalde de mina en Oruro. Pero allí dio muestras de su carácter conflictivo y violento. En 1618 se encontraba encarcelado por haber intentado acuchillar a dos clérigos en el cementerio de la Plata. En Potosí más tarde intentó suerte en la minería y quiso conseguir un nuevo empleo de gobierno”*<sup>46</sup>.

Juan Fernandez Tovar-en, Extremadurako kapitainaren, bizitza ere ez zen batera erraza izan; esate baterako, 1622. urtean kargu publiko bat eskuratu zuen (“veinticuatría” bat hain zuzen ere). Baina laster, soldadu bat zela konturatuko ziren eta ez zuela etxerik, lanik zein dirurik; seguruenik, kargua eskuratzeko behar zuen dirua jokotik zetorren. Charca-etako Audientzia ez zuen bere kargua konfirmatu eta bere gorrotoa eta kalte mina

---

<sup>45</sup> *Ibidem*, 311 or.

<sup>46</sup> Hausberger, B.: “La guerra de los vicuñas contra los vascongados en Potosí y la etnización de los vascos a principios de la edad moderna”, in Büschges, C., eta Langue F. (koord.): *Excluír para ser: procesos identitarios y fronteras sociales en la América hispánica (siglos XVII-XVIII)*, AHILA, Madrid, 23-58 or.



euskaldunei bideratu zuen. 1620. urteko erredakzio anonimo baten arabera eta Hausberger aipatzen zuena, “ los extremeños ganaron el Perú, los vizcáinos son ahora la gente más rica del Perú y los que tienen mejores cargos del rey”<sup>47</sup>. Zalantzarik gabe, ikuspuntu hau nahiko zabaldua egon behar zen Potosi-ko Extremadurakoan artean.

Beste alde batetik, euskaldunen ahotan jartzen duten iritziak gainontzeko komunitateekiko gatazka amaitzera ez zuten lagundu. 1622 urteko ekainaren 22an bikuña talde batek batu zen San Juan de Urbietan hiltzeko, Arzans-ek ebatzen zuen, “la determinación de su muerte... fue porque dijo que no había de parar hasta verse servido de los criollos y andaluces con trabajo personal en las minas e ingenios”. Iritzi mota hauek, osa zabaldua zeuden Potosi-n zehar eta Manrique-k korregidorea bando bat plazaratu zuen, arlote guztiak hilko zituela mehatxatu zuen hogeita lau orduko epean entregatzen ez baziren<sup>48</sup>.

Crespo-ren arabera, arlote terminoa andaluziar edo Extremadurakoaren sinonimoa ohi zen. Euskaldunek ahal zuten heinean, bere etsaien jatorriaren nahasketa aipatzen zuten. Horrela, adibidez, Urbietaren hilketa ezagutzeari, Uriondo euskaldunak, Arzans-en arabera, mairu txuriak (andaluzeengatik), traidore judutarrak (extremadurakoengatik) eta mestizo barbaroak (kreoloengatik) bezala kalifikatu zituen. Aipatu beharreko beste gai garrantzitsu bat euskaldunen kaparetasun unibertsala izango zen. Hiribilduak sortzen hasten zirenean, XII. mendetik XIV. mendearen amaiera tantaka hazi ziren; XIV mendeko bigarren erdialdean Bizkaian eta XIII. mendearen erdialdean Gipuzkoan goraldi bat eman zen pecheroak zein kapareak bertara joaten ziren bertan gelditzeko. Hiritar inguru honetan lehenengo fasea ematen da, kaparetasun orokorra era lokalean lortzen da lehenengo, erregea bermatuta pribilegio fiskalak populatzaile batzuei emanez (kapareak jada zirenei), geroago komunitate lokalera zabalduz.

Tolosako hiribilduaren kasuan, 1256 urtean sortu zena, kapare komunitatetan eta pecheroetan bananduta zegoen hasiera batean eta progresiboki nobleen komunitate bakarra eratu zen. Lehenengo urratsa, kapareak ziren populatzaileen lur eta orubeen gaineko

---

<sup>47</sup> *Ibidem*, 312 or.

<sup>48</sup> *Ibidem*, 313 or.

salbuspen egoera bermatzea haien jatorri lekuetatik kanpo. Bigarren urratsa, inmunitate nobiliar hori zabaltzea alde aurretik biztanleen izaera zein zen kontuan hartu gabe, hau da, pechero edo kaparea. Azken pribilegio hau, 1326ko apirilaren 3an Valladoliden lortzen da, horrela justifikatuz: “incentivo para poblar y engrandecer una villa mal defendida por ser pocos y pobres sus habitantes”. Hirugarren urratsa, kapareen tributo salbuspen bat komunitate osoan zabaltzea izango zen. 1290 urteko pribilegio zaharrari erreparatzen zion; yantar zerga salbuspena 1374ko ekainean Tolosako hiribilduari ematen zaio; populatzaileen kaparetasun orokorraren lelopean justifikatuz (honako pribilegio hau urte bereko uztailaren 8an Burgosen ere bermatu egin zen eta erregearekiko edozein “pecho”-tik salbuesten zituen). Aurrean aipatutakoa, komunitateko auzokide guztiak kapare talde sozialean sartzeari suposatzen zuen: jatorrizko kapareak, salbuestutako pecheroak eta bizilagun pecheroak). Prozesua borobiltzeko, baieztapen ezberdinak eman ziren hurrengo urteetan: 1379, 1392, 1401, 1407 eta 1420. Ermandadea sortu eta indartu zenean, kaparetasun unibertsalaren zabalkuntza bultzatu zuen bi lurraldeetara, baliabide ezberdinekin bermatuz eta zehaztuz. Lurraldeko elkarte izaera bezala, senidetuak baino izaera juridiko handiagoa zuten haien boterea existitzen zen jurisdikzioen gainera kokatzen zen. Odol garbitasunaren lorpena lehenengo, 1510-1511 eta kaparetasun unibertsala gero.

Nahiz eta aurretik Ermandade Zuzenbidean gipuzkoar edo bizkatiar kapareen izaerari erreferentziak egon, horrek ez du esan nahi berdintasun estatutarioa zegoenik baizik eta populazioaren gehiengoa kapareak zirela. Horregaitik, noble izaerako eskubide propioetan, esate baterako, zorreatatik ezin ziren espetxera joan, su-etenetan sartzeko eskubidea edota liskarrak desafioen bitartez ebatzi; honako hau bakarrik kapareak egin zezaketela zehazten zen. Kasu berezia, historiografikoki ematen zaion interpretazioarengatik eta haren irudiaren konplexuaren ondorioz, zigor ezarpenaren ezintasunaren eskubidea. Beraz, 1510 urtean Gipuzkoan eta 1511 Bizkaian kaparetasun orokorra zabaltzeko ekimen zehatza ez da ematen. Bi kasuetan, odol garbitasuna antzatsi zuten Batzar Nagusietatik emandako ordenantzen bitartez; geroago erregeak bermatuko zituen, Batzar Nagusietatik ailegatutako eskaerarengatik Erret Zedula ezberdinetatik

judutarrak eta musulmanak kanporatzeko baimena eman zien. Bi lurralde hauen data berdintsuak, berriro errepikatzen dira 1527 urtean bide berdintsutik eta helburu berdina lortzeko: lurraldeko jatorrizko leinuak kristau berriekin edo musulmanekin ez nahastea.

Bigarren eta azken urratsa, kaparetasun orokorraren aintzatetsi izango zen. Bizkaian 1527 urtean eman zen, testu nobiliar batean, hau da, Foru Berrian; hiribilduan bizi zirenei eta lur lauan hedatuko zena bere aurreko izaera pertsonala kontuan hartu gabe. Iturrien aldetik, Gipuzkoako kasua konplexuagoa omen da. Historiografiak, 1608-1610 urteen bitarteko biurteko horretan, noblezia aintzatetsi zitzaielaren hipotesia ematen da. Zigor ezarpenaren ezintasunaren eskubidea 1397 urteko Kuardernoan, zeinean gipuzkoarren kaparetasun orokorraren jatorria dago, kokatzen duten dokumentua alde batera usten da. Aintzatetsi horrek, 1527 urteko konfirmazioarekin (uztailaren 13a Valladoliden), junten ordenantza batekin, probintzian bizilagun bezala edo bizilekua ezin izango zuten izan kapareak ez baziren. Edonola ere, 1562 urtean, Gipuzkoako eskaeratik abiatuta, Errege Agindu bat ematen da (otsailaren 14an, Madrilen) gipuzkoarrak Epaitegi errealean aurrean kapareak bezala onartuak izateko bere gipuzkuar jatorriaren froga hutsarekin. Zedula honek, Bizkaitarren Foru Berriaren baliokidea, 1608 urtean berretsi zena. Dokumentu hauen ondorioz, kaparetasun orokorraren zabalpena 1608 urtean kokatzen nahiz eta 1562 urtean jada existitu<sup>49</sup>.

Lurralde elkartearen, hau da, probintziaren indarpena eta protagonismoaren hazkundera zela eta, probintziak bere elkartuen izenean, erregearen aurrean egin beharreko defentsa bereganatuko du; gipuzkoarrak eta bizkaitarrak orube kaparetasuna familia publikoarengatik eta bere erreputazioa gizonezko hiru belaunaldietan froga zezaten. Defentsa juridikoa hiru aldietan eman zen: 1561-1562, 1588-1590 eta 1608-1610. Lehenengo biurtekoa, Gipuzkoak erregeari egindako eskaera (1561eko azaroaren 17an) eta Errege Aginduari (1562ko otsailaren 14an) dagokio; hauekin, gipuzkoarrak Errege Epaitegiaren aurrean kapareak bezala onartzearen eskubidea haien jatorria frogatzearekin. Kaparetasuna frogatzeko era, pechero edo pechero lurraldeetan kapare eginkizunak egitea

---

<sup>49</sup> Soria Sese, L.: "La hidalguía universal", *Iura Vasconiae: Revista de Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia*, 3, 2006, 283-316 or.

izango zen beste lekukorik onartu gabe. Baina honako hau, gipuzkoaren kasuan ezinezkoa izango zen zeren eta lurralde horretan guztiak kapareak izango ziren, horrela izango ez bazen lurraldea despopulatuko zen. Beraz, baldintzatzaile hau bere kaparetasuna egiaztatzeko baztertzea lortu zuten. Plazaratzen diren merezimenduak militarrek izango ziren: emandako zerbitzu handiak eta etengabeak, oraindik ematen dituzten zerbitzuak gerrako prest egoten edota lege amaigabe bezala zerbitzu horiek betirako emateko prest egotea<sup>50</sup>.

Bizkaiako 1588-1590 biurteko pasarteetan, Saavedrak bizkaitarren kaparetasuna zalantzan jarriko zuen; horren ondorioz, Bizkaiak 1590eko urtarrilaren 30ean, Errege Agindua bat lortu zuen bere erreklamazioa egin ondoren. Paraleloki, Jaurgokoek, ordaindutako defentsa bat egitea eskatu zuten; Andres de Poza, Juan Gutierrez eta Alfonso Acebedok egin ohi zuten. Hirugarren biurtekoa, 1608 urtean hasiko zen; Gipuzkoak, Errege Epaitegiek era erregular batean ez zutela aplikatzen aitzakiarekin, berrespena lortzen du eta berrespen honek mantendu eta konfirmatu zen 1610 urtean. Edozein modutan, bikuñen arteko barne kohesio eza denbora gutxian ikusi izan zen. Denboraldi baterako buruzagien agerpena zein euskaldunek jasan zuten irain eta burlak ez zuten kohesio horren falta saihestu. Laster, bikuña soldaduek traizionatuak sentituko ziren bikuña potoloengandik azken hauek gauza asko promestu zuten baina bere hitza ez zuten beteko. Promesa honen apurketari ere, euskaldunen aberastasuna banatzearen promesa gehitu behar zaio. Euskaldunak Potosi-tik ihes egin zuten talde handietan, baina La Plata bezalako lekuetan errefuxiatu ziren haien ondasunen gaineko erabateko kontrola mantenduz eta erregeordearen aginteak haien ondasunak babesten zituzten. Bikuñen haserrea mantsotzen hasi zen<sup>51</sup>.

## 8. Euskaldunak

Ez dago esan beharrik, euskaldunak 1580 eta 1620 urteen bitartean, haien tokian tokiko identitate propioa eratu zutela. Seguruenik, meatzaritzaren inguruan zuten ezagutzak zirela medio bizilagunen mirespena lortu izatea. Haien interes goiztiarra kargu

---

<sup>50</sup> *Ibidem*, 283-316 or.

<sup>51</sup> *Ibidem*, 313 or.

publikoak okupatzeko begikotasunez ikustea; haien lurraldean udal administrazioa ez zegoen kutsatuta estamentu trabekin. Horregatik, kargu publikoetara iristen zirenak, normalean hoberenak kargu horretarako ziren. Ikuspuntu hau, XVII. mendearen hasieran aldatu egin zen. Bertako biztanleria boteretsuak eta aberatsak bezala ikusten hasi ziren. Gainontzeko meatzariak lehiakideak bezala ikustetik, lobby edo presio talde bat bezala ikustera pasa ziren; zeinena edozein trikimailu erabiltzen zutena egunero botere gehiago eskuratzeko. Haien barne kohesioa indartzen zuten ezaugarriak, esate baterako, Aranzazuko Ermandadea, bere hizkuntza, haien artean testafarroak aurkitzeko erraztasuna eta abarrekoak bere kontra jarri zen bere etsaien manipulazioaren ondorioz.

Alberto Crespo historiagile boliviarraren ustez, “ de todos los grupos regionales de España, es seguramente éste uno de los más inclinados al trabajo y perseverante en sus esfuerzos... En Potosí puso las bases de la industria minera, porque poseía ya una vasta experiencia en ese trabajo”. Euskaldunak, beraz, Zeroren aberastasuna lantzerantz ekin zioten; bertan zilarra ziurtatuta zegoen. Indioekin borrokatzera joan beharrean, Toledoko erregeordea konbentzitu zuten eta indioak lotuak eman zizkien. 1622 urteko erredakzio anonimo batean honako hau esaten da:

*“ han sido gente poco socorrida, desperdigados y que cada una ha tirado por su parte, se situaban los vizcáinos que son pocos, pero gente unida y que se ayudan los unos a los otros así con sus personas en sus pendencias como con sus haciendas en cualquier pleito que importe a cualquiera de su nación ”<sup>52</sup>.*

Euskaldunen arteko joera hori haien artean laguntza ematera edozein kasutan (Catalina de Eraso, monja alfereza, “*agenciar paisanos*” deitzen zuten), ez zuten asko lagundu bere irudi publikorako. Euskaldunei, hainbat irain jasan behar izan zituzten; horien artean, hain jatorrizko nobleziaren azpimarraketa. Ez da harritzekoa, maiztasun handiarekin euskaldunek bere noblezia kolektibora jotzea gainontzeko penintsularrak beste eskala batean usteko. Leporatzen zieten beste gauza batzuen artean harrokeria zein kodizia. Karikatura hauetaz aparte, beste ezaugarri batzuk bazeuden fidagarritasun handiagoa zutenak. Esate baterako, erregeordearen agintariekin harreman oso estuak zituzten eta

---

<sup>52</sup> *Ibidem*, 316 or.

haien inguruan ematen zen edozein gertakizuna haien aurrean zalatzen zuten. Paper hau jokatzeko, badakigu euskaldunek, Indietan goi zein erdi funtzionarioen laguntza zeukatela haien sare klientelarren parte izanik. Crespo-ren ustez, euskaldun izena errepresioegile edo salatzaile hitzen sinonimoak bilakatu zen. Honek gertakizun ezberdinei erreferentzia egiten zion, esate baterako, Quito-ko altxamendua 1593 urtean edota hamahiru urte beranduago emango zen beste konspirazioari. Lehenengoan, 1599 urtean gelditu zen bizkaitar batek salatu ohi zuelako, Domingo de Garay hain zuzen ere. Bigarrean, Rafael Ortiz de Sotomayor euskaldunak errepresioaren buruan jarri zituen eta parte hartu zuten guztiak hil zituen<sup>53</sup>.

Euskaldunen eta erregeordearen funtzioaren arteko aliantzan bata bestearen beharra zuten: lehenengoak bere aberastasuna eta kokaleku soziala babesteko erregeordearen funtzionarioak behar zituzten; bigarrenak, aldiz, euskaldunak behar zituzten zilar produkzioa bermatzeko eta eten ez zedin. Erlazio honetatik at, bikuñak gelditu ziren eta hain nabaria zen haien arteko harremana ezen, bikuñak bere alde erabili zuten euskaldunak bere gorrotoaren erdigunean kokatuz gainontzeko nazioak bere alde egin zezaten.

### 9. Euskaldunen eta Bikuñen arteko gerra

Erabiliko dugun material gehigarria, euskaldunek Gipuzkoako Batzarrei bidalitako gutunak izango dira. Gutun hauen hasieran honako hau aurkitzen dugu: “Comunicaciones dirigidas a la Provincia por los vascongados residentes en Potosí relativas a las inquietudes ocurridas allí desde Marzo de 1623 a 1625 de igual mes”. Beraz, 1623 eta 1625 urteen bitarteko material aurrean gaude. Gutun sorta hauetan zehar, euskaldunek Potosi-n gertatzen ari ziren gatazkei erreferentzia egiten diete eta haien kezkek plazaratzen dituzte. Material hau historiografian eman diren datuekin uztartzen saiatuko gara informazioa kontrajartzen. Gutun hauetan, pertsonai garrantzitsuak agertzen zaizkigu, esate baterako, Rafael Ortiz de Sotomayor, Juan Urrutia kapitaina, Felipe Manrique eta abarrekoak. Beraz, dokumentu oso aberatsen eta interesgarrien aurrean gaude. Banan-banan ikertzen joango gara.

---

<sup>53</sup> *Ibidem*, 318 or.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, gertakizun kronologia bat bezala agertzen zaizkigula, hau da, sortarazten ziren erasoak eta liskarrak datatzen zituzten. Oro har, gertakizunen narrazio subjektibo bat bezala plazaratzen zaigu non euskaldunek euskal probintziei haien interesak defendatzea eta injustiziak salatzea eskatzen ohi zuten. Faktore ezberdinen inguruan hausnartzeko parada aurkitzen ditugu, esate baterako, euskaldunen kaparetasun unibertsalak ematen zuen estatusa besteen aurrean. Ez dugu ahaztu behar, euskaldunek haien orubeen gaineko eta hortik kanpo haien kaparetasuna mantentzea aurrera eraman zuten defentsa estrategikoa. Ezaugarri hau bertan behera edo ukatzeko hainbat saikera egin ziren baina odol garbitasunaren baldintzari eta kristau zaharra izateak bermatu zuten haien defentsa gogorra eta sutua. Hori behin bermatuta estatus hori Potosiko lurraldean mantenduko zuten Koroaren lurraldeen barnean zeudelako. Botere postuak lortzeko baldintza estamental batzuk izateaz aparte, diruaren truke lortzen ziren. Diru hori, euskaldunek Koroari eskatzen zioten eta honek zor moduan ematen zien. Koroa kolapso ekonomikoa izan zuenean euskaldunek zorpetzen zuten dirua Pastranak jarraitu zuen haien gaineko gorrotoa handituz. Gainera, gutunetan jartzen duen moduan, erregeak bidalitako erantzun batean zor horiek ordaintzea eskatzen zien.

Garai horretako errealitatea beltza margotzen dute gutunek, zeinean euskaldunek jarraituak izaten ziren askotan hil arte; adibide gisa, Juan de Urbietaren hilketa bertan agertzen zaigu. Pasarte-liskar hauetan, euskaldunak bakarrik ez dira agertzen, haien alde bertoko jendea ere agertzen da eta batez ere klerikoak eta elizgizonak. Haien arteko harremanak oso estuak zirela baieztatu dezakegu. Haien komentuetan babesa aurkitzen zuten bikuñen erasoan aurrean. Bestetik, jendea laguntza eskaintzen zien bortizkeri hauen aurrean. Kabildo eta alkate postuetan, euskaldunak maiz agertzen ziren baina baita ere euskaldunak ez zirenak, esate baterako, Korregidoreak pakegile bezala agertzen da euskaldunak ez izanik. Baina legea errespetarazi beharrean edo zigorrak ezarri altzamenduak baretzen zituen. Biktimak eta erasotuak euskaldunak beti gutunetan eta suzko armak erditik bazeuden euskaldunak hiltzeko tiroak ez zituzten ematen. Seguruenik, erasoetaz babestuko ziren eta noizbait beste bandoko norbait hil.

Lehenengo gutunean, Espainiako nazioek bando batean batu zirela salatzen du eta

“vascongados” izenpean injustiziak pairatzen ari direla:

*“...a título de provincias españolas labantando bandera haciendo juntas confederandose entre si pasa hazer y causar una notable persecucion contra los hijos de Vuestra Señoria (Gipuzkoako Probintzia) del nobilísimo señorío de Vizcaya, provincia de Alava y Reino de Navarra, que sin distincion hermanados en estos estendidos reynos de las indias con amor y benevolencia nos llamamos vascongados..”<sup>54</sup>.*

Parrafo txiki honetan ikus daiteke nola euskaldunek beraien artean elkartu egin dira bikuñatarren bazterketaren ondorioz. Historiografian aipatzen den bezala, 1599 urteko konspirazioa bertan behera gelditu ondoren, hamahiru urte geroago beste bat eman zen. Protagonista nagusiak Alonso Yañez (soldadu bat), txanpongile eta bizargin bat, kapitain bat, arotz eta mandazain bat izan ziren. Bizargina bere plana kontatu zion kleriko bati; honek, konspirazioa bertan behera gelditzearen errua izan zuten. Ortiz de Sotomayor Korregidoreak, euskaldunak errepresioaren aurrean kokatu zituen eta konspirazioan parte hartu zuten urkapenarekin amaitu zen. Gutunek, gertakizun honi erreferentzia egiten diote honako hau esanez:

*“Gracias a Domingo de Garay, natural de Bilbao, se descubrió la trama en 1599, y la que se urdia contra el licenciado Juan Diaz de Lupiana...”. “En 1612 se descubrió en votos otra conspiración encabezada por Alonso Yañez, natural de Badajoz. Teniendo noticia el corregidor don Rafael Ortiz de Sotomayor le prendió y ajustició a sus secuaces, con la ayuda de los vascongados...”<sup>55</sup>.*

Bi informazio hauek kontrajarriz, gutunek Domingo de Garay bilbotarrari konspirazioa harrotzen diote; historiografiak, aldiz, bizargina eta kleriko bati leporatzen diote. Bestetik, euskaldunen laguntza ere nabarmentzen da eta Alonso Yañezi sua eman ziotela ere. Beraz, bertan desadostasun bat aurkitzen dugu; baliteke euskaldunek bere irudia konspirazioaren erdian jartzea pairatzen ari ziren gehigikerien aitortpenak sendotzeko eta beraiek Koroari fidelak izaten jarraitzen zutela adieraziz Koroa liskarretan beraien alde egiteko helburuarekin. Bi pasarte hauetan pertsonaien jaioterria nabarmentzen ditu, argi eta

---

<sup>54</sup> AGG-GAO, JD IT 4063, 5, f. 45 rº.

<sup>55</sup> *Ibidem*, f. 11 rº.



garbi usteko zeintzuk ziren gaizkileak bi konspirazio hauetan eta nortzuk lagundu zuten hori gelditzera. Aurretik aipatu dugun bezala, erregeordearen funtzionarioen eta euskaldunen arteko aliantza gero eta nabariagoa zen. Errege Ofizinek merkurioa komertzializatu egin zuten eta denbora gutxian kredituan eman ohi zuten zilarraren ekoizpena estimulatzeko nahian. Horrela, 1608 urtean Errege Kutzak pilatutako zorrak prestatutako merkurioaren ondorioz, 1,5 milioi dukatera iristen zen. Toledoko Erregeordearen garaian (1571), zorren gaineko abantaila batzuk lortu zituzten, esate baterako, zor inmunitatea. 1603 urtean, Velasco Erregeordeagandik lortu zuten beren meategiak, “no podrían ser vendidos por ninguna causa y los deudores tampoco apresados en la cárcel pública”. Euskaldunak, Errege Ogasuna bere alde zuten, hau da, ez zuten zorrak eta diru kontuak aztertu nahi, soilik Zeroko jarduerak ez gelditzea.

Hala ere, Esquilache Erregeordearen eskutik, Alonso Martínez de Pastrana iritsi zen, Kontu Auzitegiaren funtzionarioa. Honek, auto baten bitartez, 1618. urteko abenduaren 20an plazaratua, zordunei haien karguetatik suspenditu zituen; beraz, 1619 urteko hauteskundeetan ezin zuten botorik eman. Hanke eta Mendoza-ren arabera, Pastranak autoa era estrategiko batean egin zuen, euskaldunen botoa gutxitzeko hauteskundeetan. Kabildokoek ez zuten kasurik egin eta bi alkate aukeratu zituzten: Martin de Bertendona. Euskaldunek, erregeari gutun bat idatzi zioten Pastranaren autoa kritikatzeko. Baina Erregea eta Indietako Kontseilua 1620. urteko uztailaren 20an errege zedula bat plazaratu zuten, zeinean Pastranaren autoa indartuta ateratzen zen eta ez betetzekotan hauteskundeak bertan behera geldituko ziren. Honen erantzuna, ingenioak gelditzea eta zilarra ez ekoiztea egun batzuetan zehar<sup>56</sup>.

Pastranaren helburua, legea betearaztea zen; baina, horrekin batera euskaldunen irudia oso kaltetuta atera zen eta Pastranak euskaldunak Potosi-n zegoen gaitza guztien errudunak bilakatu zituen. Bikuñak egoera honekin, indartu egin ziren eta bere helburu nagusia, hau da, euskaldunak Potosi-tik kaleratzea eta bere aberastasunekin gelditzea, hurbilago ikusten zuten. Hauteskundeak iritsi ziren; Manuel de Zamudio eta Diego de Villegas aukeratuak izan ziren. Edozein motatako zordun guztien bazterketa kontuan hartu

---

<sup>56</sup> Otazu, A. eta Diaz de Durana, J.R.: *Op. cit.*, or. 322.

ez zenez, kabildoa euskaldunen esku gelditu zen. Euskaldunak Pastranarekin izandako bataila gogor eta luzearen ondoren, garaile bezala ikusiko zuten haien buruak. Baina Potosi-ko kaleetan, kabildoan eman zena azken txanpa bezala ikusten zen. Denboran aurrera egiten badugu, bikuñen eta euskaldunen gerran sartuta, euskaldunek euskal probintziei bidalitako gutunetan haien egoeraren larritasunez berri emateko Pastrana izena ere aurkitzen dugu. Gutun hauetan, haren esku sartzeak pairatu zituzten erasoen ondorioa izan zela leporatzen diote:

*“Todo comenzo con la llegada a Potosi del contador Alonso Martinez de Pastrana en 1618... le acusan de querer entrometerse en la elecciones anuales al cabildo proponiendo afines a los que se oponen a los bascongados... la causa de su adnimadversion o incluso por ser cristiano viejo hidalgo que los odia”<sup>57</sup>.*

Azken esaldi honetan, euskaldunen kaparetasun unibertsalak besteen gorrotoa esnatzen duela eta nabarmentzekoa da *“cristiano viejo hidalgo”*. Kristau zaharra izateak zure arbaso ezagun guztiak kristauak zirela suposatzen zuen; honek instituzioetako karguak eta profesio askotarako beharrezkoa zen odol garbitasuna, hau da, arbaso ezagunak kristauak izatea. Beraz, termino hau zuzenean lotuta dago euskaldunen kaparetasun unibertsalarekin eta odol garbitasunarekin; honako ez bazuten bere noblezia eta haien orubeetatik kanpo mantentzen zuten pribilegioak eta eskubideak galduko zituzten. 1622ko ekainaren 8an, Francisco de Oyanume-ren etxearen aurrean Juan de Urbietaren gorpua aurkitu zen, kapitain arabar bat zen. Honek, Oyanume-ren eta Verasategui-ren babespean hainbat hilketa gauzatu zituen eta horien artean portugesez bat hil zuen aldare batean. Zalantzarik gabe, bikuñak hil zuten oraingo honetan portugesen laguntzarekin. Tregua txiki baten ondoren, korregidorearen eta frantziskotarren laguntzarekin, Urbietaren hilketa mendekatu nahi zuten. Gaztelarren hurrengo pausoa Oyanume-ren arma biltegia eskuratzea izan zen.

Egoera honetan, euskaldunek, lehen ez bezala ezingo zuten erregeordearen agintarien laguntzarekin, behintzat ez begi bistan. Korregidorea, orden publikoa berrezarri

---

<sup>57</sup> AGG-GAO, JD IT 4063, 5, f. 51 vº.

nahi bazuen inpartziala izan beharko zen. Beraz, euskaldunak gutxiagoak ziren bikuñekin konparatuta eta une honetan bakarrik zeuden. Lehenengo gatazka hauetan, bikuñak azkar nabarmendu zuten zer euskalduna gorrotatzen zuten gehiago, hau da, Verasategui: “muera Verasategui y su cuadrilla”. Hala ere, ezin izan zuten hil, heriotza naturala izan zuen. Bere heriotzarekin, euskaldunak bere liderra galdu zuten eta egoera nahasi batean murgildu ziren:

*“Muchos comenzaron a salir de la villa y con destino a La Plata; gran número buscó protección en el convento de San Agustín y muchos otros se agruparon para hacer frente al enemigo en casa de Pedro de Verasategui, Pedro Orzores de Ulloa y en el ingenio de Sancho de Madariaga”<sup>58</sup>.*

Pedro de Verasategui-k euskaldunen buruzagitza eskuratu zuen; irailean bikuñak Ballesteros zauritu zuten. Pedro-k Ballesteros bisitatzera joan zen eta bikuñak etxea hartzen saiatu ziren; honek, bere etxera ihes egin zuen eta bere etxea setiatu zuten. Portugal presidenteak, Sarmiento korregidorea bidali zuen baina honek ere zauritu zuten. Azken batean, Portugal-ek joan behar izan zuen; euskaldunei armak kendu eta espetxe publikoan sartu zituen bere bizitzak errespetatuak izatearen helburuarekin. Presoak La Platara eraman nahi ziren baina bikuñak azkar bidean ihes egingo zutela zabaldu zuten. Azkenean, La Plata eraman zuten Pedro eta Antonio de Verasategui meategietako alkate maestreren babespean<sup>59</sup>.

Azaroan hilketak jarraitzen zuten, Portugal presidentea ez zuen erregeordeari berririk ematen Potosi-n bizi zen egoera inguruan; baina berriak iritsi ziren. Euskaldunak, Martin Lopez de Iturgoyen-en konfiantza osoa zuten Limako Audientziaren fiskala omen zen. 1623. urtea bakearen zantzuekin hasi zen; erregeordea kabildoaren kontrola hartu zuen eta alkateak ez ziren ez bikuñak ezta euskaldunak ere. Bitartean, Diego de Portugal denbora bere alde egiten zuela pentsatzen zuen erregeordea idatzi zuen bezala denbora zauriak osatzearen beharra zegoen. Klerikoek Portugal presionatzen zuten aldaketa bat egin zezan; Crespo-ren hitzetan, klerikoek bizkaitarren alde zeuden. Gainera, euskaldunak,

---

<sup>58</sup> *Ibidem*, f. 2 rº.

<sup>59</sup> Otazu, A. eta Diaz de Durana, J.R.: *Op. cit.*, 334 or.

meategiak eta zilar ekoizpena geldituta zegoela zabaltzen zuten berari egonkortasuna mantentzeko gai ez zela leporatuz. Hala ere, gatazkak piztu ziren berriro. Orain bikuñak, buruzagiak kartzelan zeudelarik, ospe handiko euskaldunen aurka joko zuten, esate baterako, Sancho de Madariaga meatzari ospetsua. Bere ingenioa hartzen saiatu ziren, Extremadurako langile batek iritziz aldatzea lortu zuen. San Aguntin-eko komentua setiatu zuten euskaldunak barruan zeudela esanez; esklabu beltz bat jo zuten. Berriro ingenio hartzen saiatu ziren eta La Platara tropel bat bidali zuten Verasategui eta Oyanume hiltzeko. Hilabete horietako gertakizun garrantzitsuena bikuñen lider batek armak eta bandoa utzi zuela izan zen; San Francisco-ra joan zen eta abitua hartu zuen, Juan Fernandez de Tovar hain zuzen ere. Dirudienez, 20.000 peso zor zituen eta bere hartzekodunak zorrak bertan behera utzi zituzten; ondorioz eta zor askatasuna zela medio abitua erabakia hartu zuen. Honen ondoren, euskaldunek jasaten ari ziren presioa ahuldu zuen gertakizun bat eman zen; hau da, mantxatarrak eta andaluziarrak beraien arteko etsaitasuna hasi zuten Potosi-ko kaleetatik eta plazetatik. Maiatzaren 3an hauen bien arteko bataila prestatzen ari zen, San Agustin komentuaren alboan. Korregidorea beraien artean sartu zen eta ez zen ezer gertatu.

Lima-n Guadalcazar erregeordea bilera batzuk egin zituen Felipe Manrique La Plata eta Potosi-ko korregidore berriarentzako manuskrito bat gauzatzeko. Eginbeharren artean, korregidorea arlote eta soldaduen kopurua behatu behar zituen Potosi-ko kaleetatik; hauek ziren gatazken eragileak. Su armak jasotzeko eta jarduera erlijiosoak kontrolatzeko jurisdikzio zeukan ere. Euskaldunek, izendapen honekin pozik jarri ziren, gatazka eragileak gelditzearen alde zegoela uste zuten. Euskaldunak gutun bat idatzi zioten baina bi bikuñak bidean hartu zuten; honako hau esaten zuen: “Qué os he de decir sino que Potosí está alzado contra la Corona real, y porque los vizcaínos se les han opuesto por servir al rey los han muerto, y veis aquí las cartas que llevo a Chuquisaca para la audiencia y el corregidor”. Bikuñak gutuna mezulariari kendu zioten eta Potosi-ra eraman zuten bikuñen haserrea piztuz<sup>60</sup>.

Manrique 1623. urteko maiatzaren 1ean sartu zen Potosi-n eta arlote guztiak Potosi-

---

<sup>60</sup> *Ibidem*, 326 or.

tik kaleratzea agindu zuen. Erabaki honek, bikuñen haserrea piztu zuen, Crespo zioen bezala, arlote berdin bikuña zen. Gero, bi bikuña zigorra jarrarazteko San Agustinetik indarraren bitartez atera zituen; hauek hilketa bat gauzatu ohi zuten eta heriotza zigorra jaso zuten. Egun batzuk pasa eta gero, beste hiru bikuñei heriotza zigorra ipini zien. Bikuñak Manrique euskaldunen alde zegoela leporatu zioten. Egia esan, arrazoia zeukaten; berarekin, bere iloba Francisco de Esquivel ekarri zuen. Bere jatorria zuzenki euskalduna ez izan arren laster diruko joku partidak antolatzen hasi zen bere etxean eta horietara meatzari euskaldunak joaten ziren. Bestetik, Manrique Domingo de Verasategui-ren alargunarekin ezkontz-hitza eman zuenaren berria zabaltzen hasi zen (otsailaren 19an berarekin ezkondu zen). Gainera, Sancho de Madariaga-rekin zuen harremana publikoa egin zen. Beraz, Manrique-k honekin guztiarekin bikuñak Potosi uztea lortu zuen eta berriro euskaldunen eskuetara bueltatzea. Bikuñak mehatxuak bidali zizkieten baina honek, aldiz, hamazazpi pertsona hiltzearen truke diru-saria eman zuen hain zuzen ere<sup>61</sup>.

Irailaren 4an, Sarmiento de Sotomayor korregidoreak Potosi utzi zuen; berarekin batera, Martinez Pastrana ere joan zen. Potosi-n tentsioa goraka jotzen zuen; bikuñak kolpe bat ematea planeatzen zuten. Irailaren 6an, bikuñen tropak Manrique-ren etxe inguruan zeuden. Francisco de Esquivel hil zuten eta Manrique zauritzea lortu zuten; gero, etxeari su eman zioten eta Manrique San Agustin-eko zelda batean babestu zen. Atentatu honen berri La Plata-ra iritsi zen eta Portugal presidentea Muñoz de Cuéllar bidali zuen errudunak zigor zetzan. Honek, gorputz armatu bat antolatzen hasi zen; bitartean, euskaldunak, tregoaren tranpan erori ziren bikuñekin urriaren 22an San Francisco-n egin zuten bileran. Pedro de Verasategui-k Chuquisaca-ra itzuli omen zen eta bikuñek zauritu zuten berriro ere. Bikuñak, Chuquisaca-n sartuko zirela mehatxuak egin zituzten. 1623. urteko azken egunetan, Manrique-k kargua utzi nahi zuen eta azaroan jada erregeari idatzi zion “Suplico a Vuestra Excelencia me favorezca sacandome de aquí”. Beste gutun batean, Felipe Manrique-ren azken aldian kokatu behar dugu; bertan deskribatzen du nola Felipe Manrique-rekin, euskaldunak herrira itzuli ziren baina Errege etxeetan eta komentuetan

---

<sup>61</sup> AGG-GAO, JD IT 4063, 5, f. 40 rº.

bizi behar izan zutela mehatxuengatik<sup>62</sup>. Bestetik, Erregeordearen agindua ere jasotzen da zeinean Manrique Cuzco-ra bidaltzen du:

*“El 12 de febrero de 1624 llegó el correo con una ordenanza de la ciudad de los reyes con aviso de que el virrey había decidido mandar a Cuzco al Corregidor don Felipe Manrique y nombrar en su lugar a don Antonio de Figueroa, de lo que se alegraron los vicuñas”*<sup>63</sup>.

Gutunak eta historiografia esaten dutena alderatzen badugu, bi ikuspuntu ezberdin antzeman ditzakegu. Alde batetik, gutunetan Manriqueren lekuz aldatzea errege agindua izango balitz bezala aurkezten da; korregidoreak eskatu zuen ala ez erreferentziarik ez da agertzen. Bestetik, historiografian planteatzen den eskaera korregidorearen aldetik gutunek emandako errege aginduaren urte bat lehenagoko data dauka. Hala eta gutiz ere, orain arte idatzitako eta kontsultatutako obra hauekin bat etor daitekeen esaldi bat ere aurkitzen dugu; esate baterako, Manriquek hiribildutik ateratzeko eta bere segurtasun pertsonal ziurtatzeko soldaduz inguratuta atera zen. Aipamen honekin batera, Antonio Figueroaren izendapena nabarmentzen dute eta korregidore berri honek Pastranaren aliatua zela esanez euskaldunen beldurra aldaketarekin ikus dezakegu, hau da, Felipe Manrique korregidorearekin zuten babesaren galtzea<sup>64</sup>.

Testigantza honekin, Manrique eta euskaldunak harreman estua mantentzen zutela eta euskaldunak babesten saiatzen zela frogatzen da. Gainera, euskaldunek La Platan zegoela jakin zutenean, gutun bat idatzi zioten ahalik eta lasterren ailegatzeko hiribildura. Gutun horretan, Potosi Koroaren kontra altxatu zela eta bizkaitarrak haien kontra egoteagatik eta fidel mantentzeagatik hiltzen zituztela. Beraz, bikuñek Manriqueri leporatutako gauza askotan arrazoia zeukaten. Herriaren ikuspegitik, Manrique iritsi zenetik, erregeordea eta bere aholkulariak hiribilduari bakea ekarri beharrean, bizkaitarren mendeku nahia asetzeari zutenaren ideia oso zabaldua zegoen. Bikuñak eta Iturgoyen, gutun bataila oso tentsoa izan zuten erregearekin; azken honek, euskaldunak bakean

---

<sup>62</sup> *Ibidem*, f. 39 rº.

<sup>63</sup> *Ibidem*, f. 44 vº.

<sup>64</sup> *Ibidem*, f. 48 rº.

bizitzea eskatzen ohi zuen (Potosi-ko euskaldunak Gernikako Batzar Nagusiei eskatu zieten haien interesak defenda zetzaten). Azaroko hilabetea oso txarra izan zen euskaldunentzat; seian bikuñak euskaldun bat eraso zuten enparantzaren izkina batean eta honek Madariagaren etxean babestu zen. 1.000-2.000 pertsona inguruan etxea hartzeko prest zeuden. Eraso hasi zen sute batekin batera. Egoera hau Cuellar maneiatu behar izan zuen eta elizgizonak zein klerikoak sua itzaltzen ustea lortu zuen. Euskaldunak Moneta Etxera eraman zituen eta gainontzeko euskaldunak ezkutuan etxe gobernura eraman zen. Bikuñak euskaldunen etxeak erasotzen eta lapurtzen hasi ziren herrialde osotik. Euskaldunak beldurtuak eta biolentziaren ondorioz haien meategiak eta etxeak ustea erabaki zuten baina horretarako Espainiara salbu iritsiko zirenen garantiak nahi zituzten<sup>65</sup>.

Mantxatar, gaztelar eta andaluziarren arteko gatazka bat narratzen du. Nabarmentzekoa da nola bere kide Francisco de Oyanume-ren interesak defendatzen dituen esanez dirua galtzen ari dela: “El capitan Francisco de Oyanume con algunos otros vascongados siguen todavia en la ciudad de la plata, lo que le produce unas perdidas de 100.000 pesos ademas de otros 100.000 reales en deuda que le deben castellanos, que no quieren pagar a vascongados”. Bestetik, historiografian ikus dezakegun moduan (gutunetan ere pasarte hau agertzen da), Francisco de Oyanume-ren etxearen aurrean Juan de Urbietaren gorputza agertu zen, bikuñek hil zuten. Bikuñak ere, Oyanume-ren etxeko armategi eskuratzen saiatu ziren haren etxea erasotuz. Pedro de Verasategui-ren egoera deskribatzen da: “.la misma prision o destierro sufre el capitan Verasategui y su hermano Antonio... despues de que se grito la gente de guerra matan hieren estafan roban de dia y de noche y aunque somos el blanco principal y los mas lastimados a gente castellana quieta alcanzan tambien muchos robos estafas y otros grandes injurias”. Zati hau nahiko interesgarria da, Verasategui-ren egoera deskribatu ondoren euskaldunek sufritzen duten pertsekuzioa plazaratzen du; baita gizarte osora zabaltzen du sufrimendu horrek euskaldunak ez direnak ere sufrimendu hori pairatzen ari direla ezegonkortasun giro latz horretan. Historiografian aipatzen den bezala, Pedro de Verasateguik bere etxetik atera

---

<sup>65</sup> Otazu, Alfonso eta Diaz de Durana, José Ramón: *Op. cit.*, 338 or.

behar izan zen Portugal presidentearen babespean; bikuñek bere etxea setiatua zuten.

Oro har, euskaldunek Gipuzkoako Batzarrei bidalitako gutunetan, eguneroko gertakizunak kontatzen zituzten horien berri izan zezaten. Denboraldi bateko egunero kronika bat balitz bezala, hilketak, lapurketak, administrazio kargu aldaketak zein klerikoenak plazaratzen zuten. Hala ere, ez zuten bakarrik euskaldunen gertakizunak laburbiltzen baizik eta gainontzeko probintzietako nazioen gertakizunak. Gutunetan erabiltzen den hizkuntza sentsuaren arabera, euskaldunen ustez jazarpen bortitz batean sartuak zeuden, zeinean bikuñek boterea eta aberastasuna nahi zuten. Nabari daiteke zer agintari egongo ziren beraien alde edo hobeto esanda haien interesak bermatuko zituztenak, adibide bezala, Felipe Manrique korregidorea. Bestetik, errudun bezala Pastrana ikusten zuten, zeinena botere aukeraketan esku sartu nahi zuen euskaldunak kanpo utziz eta beraien aurkako kide bat boterean ipiniz. Kasu honetan Pastranak zordunen aurka egin zituen esfortzuak ez dira agertzen ezta diruaren kontua aipatzen, soilik beraien aurka zegoela. Euskaldunen artean, gizon garrantzitsu eta boteretsuen inguruan batzen ziren, esate baterako, Verasategui familia, Francisco de Oyanume edo Sancho Madariaga. Hauek haien aberastasuna eta ospearekin euskaldunen defentsa garrantzitsu bat gauzatu zuten.

Testigantza hauen bitartez, bikuñatarren kohesio falta argi eta garbi ikus dezakegu; behin eta berriz agertzen dira bikuñarrek osatzen duten nazioen arteko gatazkak zein liskarrak. Hori, aldiz, euskaldunen artean honelako gatazkak emango zirenik ez daukagu lekukorik. Beraz, euskaldunen barne kohesio sistema trinkoa eta indartsua zela esan dezakegu eta edozein egoeran edo kontestuan elkarrekin jarraitzen zutela. Euskaldunek ozeanoaren beste aldetik haien kexak entzunak izateko eta haien interesak babestuak izateko, sare indartsu eta sendo bat artikulatuta zeukaten. Euskal pobintzietakoek, Indietan bizi ziren euskaldunen gatazkak Koroaren aurrean defendatzen zituzten. Euskal emigranteek bertara jotzen zuten aberastasuna pilatzeko eta haien etxera bueltan bidaltzeko joaten ziren. Kohesio eta kultur ezaugarri-izaerak mantentzeko eta elkar laguntzeko ermandadeak eratu ziren eta 1680 hamarkadan erakunde ezberdinak eratu ziren emigranteak bide honetik bideratzeko; odol garbitasuna eta kaparetasun unibertsalaren



irudia ez zuen bat egiten kartzeletan eta kaleetan bizi ziren euskaldunekin. Beraz, Indietatik zebilen euskaldunekiko ardura gero eta handiago bilakatuko zen<sup>66</sup>.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, gutunetan aurkitzen ditugun euskal hildakoen kopurua benetan handia dela eta bikuñen heriotzak ez dira agertzen. Seguruenik, ezkutatuko zituztela beraien iritzia eta ikuspuntua bermatzeko; beti bando guztietan hildakoak daude. Baina antza denez, bikuñarrek bizitzak kentzeko edota etxeak erretzeko eta sakeatzeko ez zuten arazorik. Gutun hauen atzean errealitate sozioekonomiko bat argi eta garbi ikus dezakegu ondorioetan plazaratuko duguna konklusio batzuk emanez.

## 10. Ondorioak

Zalantzarik gabe atera dezakegun ondorio garbiena, gatazken mamia kaparetasun unibertsalean egon zela. Bizkaitar eta Gipuzkoar orubetako kaparetasuna frogatzeko eman ziren argudioak ikertuz, hainbat ondorio atera daitezke. Guztiak bere osotasunean hartuz, bere garaian bertan behera uztea edota desegitea erraz ez izateak, indarra ematen zien. Lehenik eta behin, argudio onargarriak ziren, defendatu nahi zen egoerara egokituak, teoria eta praktika juridikoan erabiliak gehiengoetan. Bestetik, iraganaldi historiografikora jotzen zen; behin historiografiak onartuta, garai hortara arte indarrean zeuden tesi eta gaiak. Azkenik, bere trebetasuna eta bateratasunaren ondorioz, oso eraginkorrak izan ziren. Gertaera juridiko bezala, kaparetasun unibertsala kasu pragmatiko bat omen da; nahiz eta gizartearen estratifikazio juridikoak dinamizatzen duen bi botere antagonisten esku hartzearen partetik etorri (estatutuen oparotasuna eta bere bateratze progresiboa), azken hau iraungo zuena izango zen mendeetan zeharko prozesu batean. Eskubidearen lurraldetasuna prozesuaren azken fasera arte soilik eman zen, estatutu edo nazio batena, erreinutik kanpoko esparru batean. Azken eta erabakigarria den momentu horretan

---

<sup>66</sup> Angulo Morales, Alberto: “De Aránzazu a San Fermín y San Ignacio. Los emigrantes vasconavarros, la plata y las cofradías de naturales en Perú y Madrid (siglos XVII y XVIII)”, in Oscar Gila Álvarez: *La Cofradía de Nuestra Señora de Arantzazu y los vascos en Lima. En el Centenario de la fundación de la Cofradía (1612-2012)*, Lima: UPV-Cofradía de Arantzazu (Prentsan).

lurraldeko elkarteak sartzen da, ermandadea, bere izaera juridikoaren ondorioz, lurraldeko unitate juridikzionalen izenean jardun zezakeen.

Denbora parametroetan zein materialki ez daude ezberdintasun nabariak gipuzkoar eta bizkaitar elkarrekin artean. Denbora parametroetan, gipuzkoar kaparetasun unibertsalaren onarpena data, tradizionalki historiografia ematen zuenatik abiatuta aurreratu behar da Foru Berriaren urterako arte (1527); edota 1562 urtetik baino lehen finkatu behar da eta ez 1608an. Materialki, kaparetasunaren kontzeptua berdina da, Gaztelar Erreinuaren indarrean dagoen komunena: kaparetasuna Partidetan egitea, hau da, bertutetik, militarri eta aspalditik odolaren bitartez perfektionatuta eskuratzen zen noblezia; dignitasetik lortutako noblezia (ofizioari lotutakoa). Horregatik, pribilegio zehatza eta nabaria ez da existitzen, Foru Berriaren eta 1527 urteko gipuzkoar ordenantzaren baieztapenak ez du egoera bat sortzen baizik eta existentzia onartzen du.

Kaparetasun unibertsalaren inguruan sortutako doktrina juridikoaren garrantzia, bere iraupena finkapenean egongo zen; hau da, bere benetazko jatorria eta bereizgarria egiten zuena. Kaparetasuna defendatzen den argudioekin, Erregimen Foralaren oinarriak ematen ari dira eta honako hau mantentzeko kaparetasuna kontserbatzea ezinbestekoa da. Foruen berezitasunei erreparatuz ikus dezakegu: egozteko eta tributatzeko era, merkatu librearen teoria; guzti hauek, kaparetasun orokorraren ondorioz justifikatzen dira. Beraz, Kaparetasun Unibertsalak ematen zuen abantailak eta pribilegioak besteen aurrean bikuñen gorrotoa suertatu zuen haien aberastasunak eta kargu publikoak eskuratu nahi zutelako.

Aurretik egindako hausnarketaz balantzea eginez, eta euskaldunen eta bikuñen arteko gatazkari helduz, hurrengo elementuak elkar nahastu zirela esan dezakegu: euskaldunen monopolio ekonomiko eta politikoa; honek gainontzeko kolektibo penintsularrean ekoiztu zuen atsekabea (batez ere txiroenen artean); bikuña aberatsen nahi boterean euskaldunak ordezkatzeko; eskuzabaltasuna eta gorrotoa nazioen artean (unibertsitatearekiko lotura posiblea); soldadu kopuru handi batek ezer ez egin gabe hirian egotea; kolonietako sistema finantzieroaren arazo orokorra; krisi koiuntural bat izan

litekeena eta instituzioetan korrupzio gehiegi egoteak. Potosin eman ziren konfliktoen tankera zuten behin baino gehiagoetan suertatu egin ziren Amerika kolonialean euskalduna erdian egonda, esate baterako, Laicacotako edo Izacotako meategietan gertatutakoak 1665-1671 urteen bitartean<sup>67</sup>.

Bernd Hausbergerren arabera, 1614-1622 urteen bitartean alkate arrunten zerrendan euskaldunak %50 batean aukeratuak izaten ziren, baina hau hiria kontrolatzeko ez zen nahikoa. Hala eta guztiz ere, Potosiko euskaldunen taldea sare bat bezala definitzen baditugu (euskal pertsonaia boteretsuak eta haien aliatuak talde etnikoaren barruan eta kanpoan), irudia aldatu egiten da. Pedro de Mondragoneri arau etniko bereziak aplikatzearen laxotasuna zantzu bat izango zen; euskaldunek korregidoreekin zituzten erlazioak, froga indartsu bat. Hezkontza praktikak beste bat izango zen, Domingo de Verasategui eta Clara Bravo de Cartagenaren arteko erlazioa bezala. Euskaldun boteretsuen endogamia etnikoa ezaugarri nagusi ez zen izan. Sare sozialaren barnean lortu zen bere arrakasta, zeinean faktore etnikoa beste bat bezala izan zen. Euskaldunen eta bikuñen arteko gerra, zentzu horretan, ez zen borroka etniko bat izan baizik eta talde sare boteretsu hegemoniko baten borroka soziala endeinatutako kapa sozialaren artean, batez ere soldaduak. Ezberdintasun sozioekonomikoa lotura etnikoak baino pisu handiagoa zuen. Ez dugu ahaztu behar, gerra hasi baino lehen zilarren ateratze geldiketa bat egon zela krisi koiuntural bat eratuz; horrek, txiroen egoera zuzenean eragingo zuen ezberdintasunak handituz eta jendearen atsekabea mugituz. Gutunetan agertzen den moduan, askotan euskaldun aberatsen etxeak arpilatzen zituzten baliozko ondasun guztiak eramanez, diru baldintzak nolakoak zirenen seinale argia. Gainera, euskaldunek garatutako herritarren arteko laguntza sareak eta bere eskusibotasuna behartsuen haserrea piztuko zuen zeren eta beraei ez zieten inork laguntzen<sup>68</sup>.

---

<sup>67</sup> Laicacotako gertakizunak, Potosin bezala, ikerketa batzuk finkatu dituzte. Nahiz eta euskaldunen gaiarekin zuzenki erlazionatuta ez egon, lan bat aipatuko dugu: Lohmann, G.: *El conde de Lemos, Virrey del Perú*, Madrid, 1946, 151-227 or.

<sup>68</sup> Hausberger, B.: "Paisanos. La etnicidad de los vascos de Potosí, c. 1600-1625", *Caravelle* [online], 101, 2013 (<http://caravelle.revues.org/641> ; DOI : 10.4000/caravelle.641)(ekainaren 20an kontsultatuta).

## 11. Bibliografía

Andrés-Gallego, José (coord.): *Navarra y América*, Colección las Españas y América, Mapfre, Madrid, 1992.

Angulo Morales, Alberto: “De Aránzazu a San Fermín y San Ignacio. Los emigrantes vasconavarros, la plata y las cofradías de naturales en Perú y Madrid (siglos XVII y XVIII)”, in Oscar Gila Álvarez: *La Cofradía de Nuestra Señora de Arantzazu y los vascos en Lima. En el Centenario de la fundación de la Cofradía (1612-2012)*, Lima: UPV-Cofradía de Arantzazu (Prentsan).

Arzans de Orsua y Vela, Bartolomé: *Anales de la Villa Imperial de Potosí*, s. XVIII, Biblioteca Boliviana, Ministerio de Educación y Cultura / Biblioteca Popular Boliviana, La Paz, 1970.

Bermúdez, Carmen: *Catálogo de pasajeros a Indias*, s. XVI, XVII, XVIII, vols. I-III (1509-1559), Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Sevilla, 1940-1946.

Caro-Baroja, Julio: *La hora navarra del XVIII. Personas, familias, negocios e ideas*, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1969.

Cortés, Vicenta: “Fuentes documentales para la historia del País Vasco y América. Instrumentos de información”, in Álvarez-Gila, Oscar et al. (ed.), *Euskal Herria y el Nuevo Mundo. La contribución de los vascos a la formación de las Américas*, Servicio Editorial de la UPV-EHU, Vitoria, 1996, 459-481 or.

Crespo R., Alberto: *La guerra entre vicuñas y vascongados (Potosí, 1622-1625)*, Tipografía Peruana, Lima, 1956.

Domínguez-Fernández, Enrique: “Pasajeros navarros a Indias en el siglo XVI”, *Principe de Viana*, Anejo 13, 1991, 293-310 or.

Esparza, Jose Mari: *Potosí. Andanzas de un navarro en la guerra de las naciones*, Txalaparta, Tafalla, 1996.

Galbis, Carmen: *Catálogo de pasajeros a Indias, s. XVI, XVII, XVIII*, vols. IV-VII (1560-1599), Ministerio de Cultura, Madrid, 1980-1986.

Giraldez, Arturo: *La primera globalización y un inquisidor en el Potosí de 1650: El Memorial de Don Alonso Merlo de la Fuente*, University of the Pacific, 2006.

Hausberger, Bernd: “La guerra de los vicuñas contra los vascongados en Potosí y la etnización de los vascos a principios de la edad moderna”, in Büschges, Christian eta Langue, Frédérique (koord.): *Excluire para ser: procesos identitarios y fronteras sociales en la América hispánica (siglos XVII-XVIII)*, AHILA, Madrid, 23-58 or.

— “Paisanos. La etnicidad de los vascos de Potosí, c. 1600-1625”, *Caravelle* [online], 101, 2013. (<http://caravelle.revues.org/641> ; DOI : 10.4000/caravelle.641).

Helmer, Marie: “Un tipo social: ‘el minero’ de Potosí”, *Revista de Indias*, XVI, 1956, 85-92 or.

— “Luchas entre vascongados y ‘vicuñas’ en Potosí”, *Revista de Indias*, XX, 81-82, 1960, 185-195 or.

Kintana, Jurgui: *La “nación vascongada” y sus luchas en el Potosí del siglo XVII. Fuentes*

*de estudio y estado de la cuestión, Estudios Americanos, 59, 1, 2002, 287-310 or.*

Martín, Carmen: “Vascos en Potosí: minas y mineros, según una fuente inédita de Arzáns y Vela”, in Álvarez-Gila, Oscar et al. (ed.), *Emigración y redes sociales de los vascos en América*, Servicio Editorial de la UPV-EHU, Vitoria, 1996, 411-418 or.

Mendoza, L. Gunnar: *Guerra entre vascongados y otras naciones de Potosí*, Documentos del Archivo Nacional de Bolivia (1622-1641), Cuadernos de la Cultura Boliviana, Potosí, 1954.

Lohmann, Guillermo: *El conde de Lemos, Virrey del Perú*, Madrid, 1946.

Otazu, Alfonso eta Diaz de Durana, José Ramón: *El espíritu emprendedor de los vascos*, Sílex Universidad, 2008.

Pérez-Alcalá, Rosario: “Vicuñas y vascongados: la lucha por el poder en Potosí en el siglo XVII”, *Ifigea*, V-VI, 1989, 207-215 or.

Serrano, Fernando: *Vascos y extremeños en el Nuevo Mundo durante el siglo XVII: un conflicto por el poder*, Asamblea de Extremadura, Mérida (España), 1993.

Soria Sese, Lourdes: “La hidalguía universal”, *Iura Vasconiae: Revista de Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia*, 3, 2006, 283-316 or.

### **Beste iturriak**

Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (GAO), JD IT 4063, 5.